Eremu libreen ezaugarriak haien baldintzei dagokionez: Ingurumeneko baldintzak, fisikoak eta pertzepziokoak aztertzea beharrezkoa da eremu nagusien erosotasunaren ikuspegitik, bai eta horiek hobetzeko dauden aukerak ere. Sare berdea hobetu beharra dago, halaber, hiri-bilbearen eta hiri-ingurunearen arteko mugetan.

Ibaizabal eta Mañaria ibaien erriberak ibilbide berdeak bihurtzeko indarrean dauden Arau Subsidiarioen helburua partzialki bete den arren, planifikatutako eremu batzuk ez dira gauzatu oraindik.

Durangorako balizko eraginak eta estrategiak

Iragazkortasuna handitzea, biodibertsitatea bermatzeko eta klima-arriskuak murrizteko: landarediari eusteko gai den lurzoruaren azalera handitzea eta urbanizazioen eta azpiegituren hesi-efektua murriztea.

Hiriko landaredia: landaredia eraikinetan txertatzea (fatxadak, estalkiak, lorategiak, patioak...).


Eremu libreen eta berdeen sarea areagotzeko beharra dago, herritar guztiei zerbitzu egokia eta jasagarria eskaintzeko, batez ere erdigunean eta San Fausto eremuan.

Ingurumeneko baldintzak, fisikoak eta pertzepziokoak eremu libreen, plazen eta parkeen erosotasunaren ikuspegitik aztertzea. Konexioan gabeziak dauden eremuetan sare osasungarriaren konexioa hobetu eta osatzea.

Ibaizabal eta Mañaria ibaien erriberako ibilbideen sarea lohiz bete eta hobetu egin behar da, erriberako parkeen eremua handitzeko.

Oinezko eta bizikletentzako ibilbideek osatzen duten sare osasungarriak hiriko berdeguneak eta hiri-ingurukoak lotzen ditu eta gatazka-gune batzuk ditu topaketarako eremu mugakideetan, hiri-bilbearen eta zoru ez urbanizagarrien artean, eta hobetu egin beharko lirateke.

Gainezarpenak daude txakurrak paseatzeko araututa dauden eremuen eta hiriko espazio libreen eta berdeguneen sare nagusiaren artean, eta, ondorioz, gatazkak sor litezke eta espazio librearek murriztu. Gatazka baloratu eta mugatu behar da.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

2.11. Lotutako mugikortasuna

Mugikortasun jasangarriaren erronka nagusia ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna murriztea da. Horretarako, lehenengo urratsa hurbileko hirigintza garatzea da: ekipamenduak, merkataritzak, zerbitzuak eta enpleguak etxebizitzetatik hurbil daude.

Udalerriko mugikortasunak oinez eta bizikletaz egiten diren lekualdatzeen inguruan biratu behar du eta modu horiek erraztu behar dira motordun ibilgailu pribatuen aurrean (autoa).

Gauzatu ez den bide-sarearen proposamenak birplanteatu eta aztertu behar dira, eta bakoitza gauzatzeko kudeaketa ereduak zehaztu.

Bizikleten mugikortasunaren inguruko egungo plangintza etorkizuneko HAPOn sartu behar da eta, era berean, egungo bilbearen balizko hobekuntzak planteatu.

Oinezkoen zatiak eta Durangoko eremu libre nagusiak konektatzeko beharra dago oinezkoen sarea hobetu eta handitzeko jarduketaren bitartez.

Erdigunean dagoen oinezkoentzako aparkalekuaren eskariaren irtenbidea aztertzeko beharra dago (Alde Zaharra, Antso Estegiz, San Frantzisko).

Ekintza Planaren proposamenak aztertu behar dira Durangoko mugikortasun jasangarriaren Planaren barruan, HAPOn etorkizuneko berrikuspenean txertatzeko.

Udalaz gaindiko plangintzaren dokumentuan ageri diren mugikortasun jasangarriko gidalerroak aztertu behar dira, HAPOn sartzeko.

Durangorako balizko eraginak eta estrategiak

Garraio-eragileen, hirigileen eta azpiegituren hornitzaileen artean diziiplina anitzeko azterketa sustatzea, mugikortasunaren konplexutasuna konpondu eta garraio publikoa erabiltzaileentzako esperientzia erraza, fidagarria eta adimenduna izan dadin lortzeko.

Hurbileko hirigintza diseinatzea: hurbiltasuna da hirigintzako jarduketaren balio nagusia.

Espazio publikoetan hainbat erabilera bateratzea, ibilgailuen okupazio hegemonikoaren kalterako.


Mugikortasunerako modu berriak ahalbidetzeko estrategiak: carsharing, bikesharing, etab.

Garraio-moduen konbergentzia-prozesuan, aurrea hartu, oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak funtsezkoak izan daitezen sistema osoan.

Bide-egitura nagusia osatzea: kanpoko bide-eraztuna hegoaldetik ixtea, barruko bide-eraztuna hobetzea Larrasoloetatik, bi eraztunen arteko konexioaren erradialak osatzea.

Bizikletentzako sareak hobetzea: Ekialde-Mendebalde konexioa egitea trenbide zaharraren bitartez, Ipar-Hego konexioa, hiriko bidegorrien sarea landa-bideen sarearekin elkartuz.

Oinezkoentzako sareak hobetzea: Ekialdea-mendebalde trenbide zaharraren bitartez eta Hiri Debekatuaren Mapan hautemandako puntu beltzei irtenbidea ematea .



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

2.12. Durangok herritarren bizi-kalitatea lortzeko/hobetzeko dituen erronkak

Azken atal honetan jorratuko ditugu diagnostiko parte-hartzailearen emaitzen arabera Durangok herritarren bizi-kalitatea bermatzeko dituen erronkak, eta HAPOrako planteatu diren balizko aukerek erronka horiei erantzuteko balio duten kontrastatu eta baloratuko da.

2.12.1 Udalerriaren eredua

DURANGOREN ZENTRALITATEA SUSTATZEA:

Eskualdeko Hiriburuaren edo Eremu Funtzionaleko Buruaren zeregina gauzatzea, inguruan eraginez eta alboko lurraldeari ere onurak eskainiz.

Merkataritzaren eta zerbitzuen aldetik Hirugarren Sektore indartsua garatzea.

Ekipamenduetan eta Parkeetan maila altuak lortzea.

Barneko erreformaren eragiketak egiteko lurzoruak eta ekonomia-jarduerako arloak sortzea eta balio erantsi altua duten ekonomiak erakartzea.

HIRI KONPAKTUAREN, JARRAITUAREN, TRINKOAREN, KONPLEXUAREN ETA KOHESIONATUAREN GARAPENEAN AURRERA EGITEA:

Jardueran, bizitzan eta topaketan aberatsa den hiria lortzeko.

Garapen sakabanatuak ekiditeko eta erabileren nahasketa sustatzeko.

Ekipamenduen sare orekatuarekin.

Herritarren parte-hartzea sustatuz eta genero-ikuspegia txertatuz.

HIRIAREN ETENGABEKO BERRONERATZEA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA:

Zaharkituta geratu diren edo hiria hobetzeko beharrezkoak diren arloak berroneratzea.

Hirigintza-ekintzak egitea (trena lurperatzeagatik libre geratutako eremuak, eremu librean eta parkeen hobekuntza, irisgarritasunaren hobekuntza...).

2.12.2 Demografia eta biztanleria


Herritarrek udalerriarekin dituzten lotura-faktoreak sustatzea.

Kulturarteko hiriaren estrategia indartzea, dibertsitatearen aitortzan, bertako pertsonen eta atzerriarren arteko interakzioan, parte-hartze politiko eta sozialean eta diskriminazioaren prebentzioan oinarrituz. Hori guztia egiterakoan kontuan izan behar da gizarteratze horrek euskaran izan dezakeen eragina.

Emakume eta gizonen botere-harreman pertsonaletan eta sozialetan oreka handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea.

Durango, adinekoekin hiri lagunkoia

Talentu gaztea atxikitzeke plana egitea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

2.12.3 Laneko merkatua, sektore ekonomikoak eta hezkuntza

Ekonomia-jarduera indartzea, espezializazio-estrategia adimendunaren bitartez: sektore estrategikoen aldeko apustua.

Ekonomia-jardueren ekonomiko/komertzial tradizionalaren eraldaketa babestea: enpresari txikia ahalduzko programa.

Eskualdeko ekosistema: eskualdeko udalerriekin sinergiak bilatzea.

Egunero eta etorkizuneko aukeren eremuak identifikatu eta kudeatzea, ekonomia-jarduerak berriak hartzeko.

2.12.4 Mugikortasuna eta garraioa

Mugikortasuna planifikatu eta kudeatzea, alboko udalerriekin lotuta dagoen sarea sortzeko.

Herritarrak lurzoru ez urbanizagarriaren erabilera eta gozamenak hurbiltzea, oinezkoen eta hiri-periferiako eremuetan bizikleten konektagarritasuna hobetuz.

Garraio-sare bakarra lortzea, askotariko moduak lotuz eta oinez eta bizikletaz egiten diren hiri barneko lekualdatzeak txertatuz.

Sare iragarritasun-irizpideen arabera diseinatzea, herritar guztiek erabilera eta iragarritasuna izan dezaten.

2.12.5 Aisialdirako eta atsedenetarako eremuak

Eremu librean eta berdeguneen sarea zabaltzea, herritar guztiei zerbitzu egokia eta jasagarria eskaintzeko.

Garapen berrietan eremu librean eta berdeguneen hurbiltasuna lortzea.

Orain dauden eremu publikoak birpentsatzea eta berriak planifikatzea, ergonomiaren, iragarritasunaren eta segurtasunaren gutxienezko irizpide berriekin eta klimaren egokitasunarekin.


Oraingo ekipamenduen sarea hobetu eta egokitzea.

Garapen berrietako ekipamenduen egokitzapena eta iragarritasuna aztertzea, batez ere osasunerako, hezkuntzakoak, kirolerakoak, kulturakoak eta ongizate sozialekoak.

2.12.6 Etxebizitzaren egitura

Etxebizitza-parkea birgaitzeko apustua egin, batez ere erosotasunaren estandarrei dagokienez zaharkituta dauden bi auzotan, baina baita ingurumenaren eta energia-efizientziaren irizpideei dagokienez ere. Horretarako, kontuan izan behar dira bizitzeko molde berriak eta pertsonen etapa desberdinak, eta IKT berriak txertatu ahal izateko proiektuak garatu behar dira.

Etxebizitza sozialaren inguruko gogoeta, errealitate berriak kontuan hartzeko: biztanleria zaharra; pertsona heldu eta gazteak eta diru-sarrera ertainak dituzten etxebizitzak; kolektibo zaugarriak eta ezaugarri espezifikoak dituzten pertsonak, hala nola desgaitasuna dutenak, errefuxiatuak, immigranteak eta etxegabeak. Bai eta diru-sarrera txikiak edo batere ez dituzten pertsonak ere.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

2.12.7 Ingurumena eta klima-aldaketa

Klima-aldaketa eta energia fosilak agortzea izango dira jasangarritasuneko agenda markatuko dutenak.

Alde horretatik, energia fosilekiko mendekotasuna murriztea da erronka bai eraikinetan eta etxebizitzetan, bai mugikortasunaren arloan, irtenbide eraginkorrak eta energia berriztagarriak txertatuz, eta, aldi berean, udalerrria oinezkoen eta txirrindularien neurria diseinatuz. Aldi berean, biodibertsitatea zaindu beharko da, klimaren eraginak egokituz, zatiketa arinduz eta udalerrian lotura berde eta jarraituak eginez. Aurreko guztiak gainera, eragin positiboa izango du airearen kalitatean, zaratan eta berotegi-efektuko gasen isurpenen murrizketan.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

3. 2/2006 LEGEAREN 90. ARTIKULUAREN KONTSULTEN EMAITZAK

3.1. Sarrera

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.1 artikuluekin bat etorritik, HAPO idaztea erabaki ondoren, babes zibilar, ingurumenari, kultura-ondareari eta natura-inguruneari buruzko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta dagokion foru-aldundiko organoei eskatuko zaie dauden arriskuei eta ingurumen-baldintzei buruzko informazioa, bai eta antolamenduak errespetatu beharreko kultura-ondarea eta natura-ingurunea babesteari buruzko baldintzatzaileak ere. Justifikazio tekniko eta juridikoa erabiliz, bi hilabete baino gutxiagoko epean emango da.

2021eko otsailean, Durangoko Udalak eskaera hori organo eskudun hauetara bidali zuen:

Bizkaiko Foru Aldundia

Herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila

Iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Eusko Jaurlaritza

Segurtasun Saila

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Legezko epea igarotzerakoan, txosten hauek igorri dituzte:

3.2. Azpiegituretako eta lurralde garapenerako sailaren txostena (BFA)


Sarrera erreg.: 2021003224 *apirilaren 6koa.*

Herri administraziorako eta erakunde harremanetarako sailari egindako eskaera azpiegitura eta lurralde garapenerako *sailak erantzun du.*

Ez dute informaziorik eman arriskuen eta ordenamenduaren arabera errespetatu behar diren ingurumenaren, kultur ondarearen babesaren eta ingurune naturalaren baldintzatzaileen inguruan. *Halaber, Durangori eragiten dion Lurralde Antolamenduan ezarrita dauden jarraibideen eta orientabideen informazioa eman du.*

Indarrean dagoen lurralde-plangintza Durangoko Eremu funtzionalaren LPPa da, bai eta LAG berriak ere. Horieta, eremu funtzionalaren izena aldatu da eta orain Durangaldeko Eremu Funtzionala da.

Durangoko LPPa oraindik ez da egokitu indarrean dauden LPPetara; beraz, horiek onartzen dituen 2019ko uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorren arabera, LPPak indarrean jarraituko du egokitu ezean, eta horretarako 8 urteko epea egongo da. Alabaina, kontuan izan beharko dira I. eranskinean dauden eta zuzenean lotesleak diren eraginkortasun-arauak Jarraibide berriak aplikatzeko arauetan, eta horiek lehenetsiko dira LPPAren kontraesanak baldin badaude.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

“V - Udal Plangintzaren Afekzioen Dokumentua” dokumentuan jasotzen ditu LPPak udalerrri guztientzako afekzio orokorrak (2.2 atala) eta Durangorako afekzio zehatzak (2.2.2 atala).

Horretarako, txostenak “1. eranskina. Durangoren afekzioak” dokumentua du atxikita, eta bertan jasotzen dira LPP horretatik ateratako afekzio horiek, eta Durangoko HAPOak kontuan izan behar dituenak.

Gainera, eranskin horretan jasotako informazioa garatu, osatu eta/edo zabaltzen dituzten alderdi batzuekin osatutako atalak ere txertatu dira, eta horiek ere kontuan hartu behar dira:

- *Etxebizitzaren kokaguneen sistemak: etxebizitzaren zenbaketa, dentsitateak eta tipologia; babes publikoaren erregimenen bat duten etxebizitzak.*
- *Ekonomia-jardueraren kokapenen sistema.*
- *Mugikortasuna: garraio kolektiboa eta intermodalitatea; bide-sarea; trenbide-sarea*
- *Oinarrizko azpiegituren sareak*
- *Hiriaren kalitatea eta bizi-kalitatea: hiri-berrikuntza; birgaitzeko eremuak; ekipamenduak; kultur ondarea.*
- *Plangintzak bateratzea.*
- *Ingurune naturalaren eta landaren antolamendua*
- *Paisaiaren zehaztapenak*
- *Hiri-nukleoaren inbentarioa*
- *Klima-aldaketa*
- *Eraldaketa ardatza*
- *Dokumentazio grafikoa*

Aurreko puntuez gain, HAPOk Durangoko LPParen antolamendu-planoetan jasota dauden Durangorako afekzio zehatzak hartu beharko ditu kontuan.

1.1 “Ingurune naturalaren antolamendua. Kategorizazioa” antolamendu-planoari dagokionez, kontuan izan beharko da EAEANren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko maiatzaren 7an Lurzoru Berezia Babesa - Baso Autoktonoa auziaren inguruan egin zuen epaia.

3.3. Iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko sailaren txostena (BFA)

Sarrera erreg.: 2021002069 otsailaren 12koa.


HAPO egiterakoan kontuan izan behar diren ingurumeneko baldintzatzaileen berri ematen du.

Jasangarritasunaren inguruko printzipioak jasotzen dituzten hirigintzaren eta ingurumenaren legediaren hainbat artikulu zerrendatzen ditu, eta HAPO egiteko lagungarriak izan beharko lirateke.

HAPOrentzat aplikagarriak diren ingurumeneko helburuak zein diren ere zerrendatzen du. Planak ingurumeneko helburu zehatzak har ditzake aipatutako ingurumeneko helburuetan oinarrituz.

Ingurumeneko irizpide estrategikoei dagokienez, nabarmentzekoa da HAPOk behar bezala justifikatu beharko lukeela etxebizitzaren eta industriaren balizko garapen berrien dimentsionamendua. Zorrotz aztertu beharko lirateke planteamenduarengatik erantzun beharreko beharrak, eta aurreikusitako garapenen gaidimentsionamendua ekidin beharko litzateke. Nolanahi ere, HAPOk udalerraren harrera-azterketa izan behar du garapen urbanistiko berrientzat.

Premisa horretatik abiatuta, estrategikotzat jo behar diren ingurumeneko helburu batzuk zerrendatzen ditu. Irizpide estrategiko horiek planak hartutako helburuak lortzeko aukeren identifikazioan, deskribapenean eta ebaluazioan integratu behar dira.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Aukerak aztertzea behar duten gaiak gaineratik aipatzen dira: etxebizitzaren eskaintza, etxebizitza-motak, ekonomia-jardueretarako eskaintza, lurzoru urbanizagarriaren balizko arlo berriak, garapen arloetako antolamendu xehatua, erabileren erregulazioa, urbanizagarria ez den lurzoruaren kategorizazioa, balizko ekipamendu berriak, balizko aparkaleku berriak.

Azkenik, Durangon ingurumenaren aldetik interes berezia duten baliabideak eta espazioak aipatzen dira: Urkiolako kontserbazio bereziko eremuak; hegaztiak babesteko eremuak; komunitateko interesa duten habitatak eta komunitateko lehentasunezko interesa duten habitatak; landaredia autoktonoaren hesi eta guneak; basoko domeinu publikoko mendiak; udalerriko azpiegitura berdea; flora exotiko inbaditzaileak hartutako eremuak; domeinu publiko hidraulikoarekin, ibaiekin eta lur azpiko urekin lotutako eremuak; Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan zehaztuta dauden balio estrategiko handiko lurzoruak; ustezko eremu arkeologikoan dauden Euskadiko Kultur Ondarearen ondasunak; asko kutsatzen duten jarduerak izan dituzten lurzoruak eta udalerritik igarotzen diren garraio-azpiegituren zortasun akustikoaren eremuak.

3.4. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txostena. Kultur Ondarearen Zerbitzua (BFA)

Sarrera erreg.: 2021002561 martxoaren 9koa.

6/2019 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoaren arabera dauden babes-ondasunak baieztatzea:

- *Durangoko Hirigune Historikoa: Babes berezia duen monumentu multzoa (4/1997 Dekretua)*
- *Kurutziagako gurutzea: Babes berezia duen monumentua (302/2003 Dekretua)*

Alabaina, EAEko Euskal Kultur Ondarearen Zentroari kontsultatzea gomendatzen da. Bertan kontsulta daitezke interes kultureko ondasunen harremana eta haien kokapen geografikoa, baita babes bereziko edo ertaineko ondasun aitortzeko proposatutako babes-erregimenaren deskribapena ere.

Arkeologiako kultur ondareari dagokionez, 1997ko maiatzaren 21eko Ebazpenean aitortutako ustezko eremu arkeologikoak babestu behar direla dio. Honako hauek dira:

9. Portal del Olmedal errota (ez du ageriko egiturarik) (E)

16. Murueta dorrea (egun baserria) (A)

19. Mikeldi burdinola (D)

21. San Pedro Tabirakoa (A)


22. Aranekoa burdinola (D)

23. Zuazolako Santa Kruz Ermita (egun baserria) (A)

24. Santa Luzia Ermita (egun baserria) (A)

Gainera, Durangoko hirigune historikoko eremu arkeologikoa Kultur Ondasun gisa dago aitortua, Monumentu Multzoen kategorian (428/1995 Dekretua).

Kontuan izan beharko da interes arkeologiko edo historikoa duten objektu eta hondakin materialak aurkituz gero, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 74. artikulua (4 eta 5 atalak) xedatutakoaren arabera jokatu beharko dela.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



Avance
Aurrerakina

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

3.5. Segurtasun Sailaren txostena Segurtasun Sailburuordetza. Larrialdien arreta eta meteorologia zuzendaritza. (EJ)

Sarrera erreg.: 2021002185 otsailaren 23koa.

Udalerrian babes zibilerako dauden arriskuen txostena igortzen du. Arriskuak hautemateko eta inbentarioa eta arriskuen mapa egiteko eskumena duen saila denez, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren eskumenak dituzten organoei helarazten dizkiete, tresna horiek egiterakoan arriskuen informazioa kontuan hartzeko. Bestalde, Durangok Udal Emergentsia Plana duela jakinarazten du 1998tik.

Durangoko babes zibilerako arriskuen azterketak arrisku-mota hauek jasotzen ditu:

- Uholdeekin lotuta dauden arriskuak. Lurzoruaren erabilerak.
- Lurrikaren arriskua
- Basoko sute arriskua
- Arrisku teknologikoak: Merkantzia arrikutsuen garraiorako arriskuak eta SEVESO III Araudia.

Azterketa horretan bi gai garrantzitsu soilik daude:

Ibaizabal ibaiari, Mañarierrekari eta Zumelegiri lotutako 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako orbanak eta lehentasunezko fluxu-eremua identifikatzen dira. Uholdeen arrisku potentzial esanguratsua duen eremua hauteman da (ARPSI) ES017-BIZ-9-1 (Durango) ibilgu horiekin lotuta.

Domeinu publiko hidraulikoaren, haiekin lotutako zortasun eta babes eremuen eta urek har ditzaketen eremuen afekzioei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoak eta EAEko ibai eta erreken LPSak xedatzen dutena bete beharko da.

Halaber, kontuan izan beharko da Domeinu Publiko Hidraulikoaren Araudiaren (RD 638/2016) azken aldaketa, lehentasunezko fluxu-eremuen eta uholdeak izan ditzaketen eremuen erabileraren mugei eta baldintzatzaileei dagokienez.

Hiriko plangintza egiteko kontuan izan behar dira EAEko Baso-suteen Arriskuagatiko Larrialdietako Plan Bereziaren VI eta VII. eranskinetan ageri diren baldintzatzaileak, baso-sute handiko edo hirigintza- eta baso-interfazeko eremuetako erabileretarako Autobabes Plana egiteko derrigortasunari dagokienez, bai eta kanpaketa-instalazioei dagokienez ere, hurrenez hurren.


Azkenik, erkidegoko eta estatuko araudia eta babes zibileko dokumentu esanguratsuak zerrendatzen ditu.

3.6. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Kultur Ondarearen Zuzendaritza. Euskal Kultur Ondarearen Zentroa. (EJ)

Sarrera erreg.: 2021002068 otsailaren 18koa.

Bi eranskin ditu.

1. eranskinak interes arkitektoniko eta arkeologikoa duten elementu higiezinaren harreman indibidualizatua jasotzen du, ondare arkitektonikoen eta ondare arkeologikoen hainbat zerrendatan banatuta.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- 1.1. Kultur ondasun izendatu diren eta Euskadiko Kultur Ondarearen Erregistroan erregistratuta dauden elementu arkitektonikoak.
- 1.2. Kultur Ondarearen Katalogoetan dauden eta informazio-tresna horietan egin diren informazio eta balorazioen arabera Euskadiko Kultur Ondarearen Erregistroan sartu behar diren eta EAEko Kultur Ondareak babesa jasotzea merezi duten elementu arkitektonikoak.
- 1.3. Tokiko interes kulturala duten elementu arkitektonikoen zerrenda, eta horregatik Kultur Ondarearen Katalogoan sartu eta HAPOren bitartez babestu beharko litzatekeena.
- 2.1. Kultur ondasun izendatu diren eta Euskadiko Kultur Ondarearen Erregistroan erregistratuta dauden eremu arkeologikoak.
- 2.2. Aitortutako ustezko eremu arkeologikoak.
- 2.3. 6/2019 Legeak babesteko proposatu diren interes arkeologikoko eremuak.

2. eranskinak Euskadiko Kultur Ondasun izendatu diren elementuentzat indarrean dauden aginduen inguruko informazioa biltzen du, baita EAE edo udalerrri mailan aitortzeko proposatu diren elementuentzako gomendatutako babes-irizpideak ere.

2022ko martxoaren 16an Sailak egin zuen idatziaren bitartez argitu da proposamen gisa txertatutako higiezinak aztertu eta esku-hartzerik egokienarekin katalogoan txertatu ala ez erabakitzea udalaren eskumena dela, are gehiago higiezinak udalerrian badaude.


3.7. Lurralde plangintza, etxebizitza eta garraio saila. Lurralde plangintzaren eta hiri agendaren sailburuordetza. Lurralde plangintzaren eta hiri-agendaren zuzendaritza. (EJ)

Sarrera erreg.: 2021004563 ekainak 3koa.

Ingurumen eta Lurralde Politika sailari egindako eskaerari Lurralde plangintza, etxebizitza eta garraio sailak erantzun dio.

Ez dute informaziorik eman arriskuen eta ordenamenduaren arabera errespetatu behar diren ingurumenaren, kultur ondarearen babesaren eta ingurune naturalaren baldintzatzaileen inguruan. Alabaina, HAPO egokitu behar den Lurralde Antolamendurako Tresnen zerrenda erantsi du.

Halaber, 2019ko LAG berriak onartzeko igorritako etxebizitzaren zenbaketa erantsi da, fitxaz fitxa.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

4. AURRERAKINEKO PROZESU PARTE HARTZAILEAREN ONDORIOAK

4.1. Sarrera

HAPO idazten hasi aurretik, Udalak "Durangoko HAPO egiteko diagnostiko parte-hartzailea" egin zuen eta dagokion atalean zehaztu da.


Gerora, EAEko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea betez, HAPO prestatzen hasteko akordioarekin batera (2019ko uztailaren 17ko udalbatzako akordioa), Herritarren Parte Hartze Programa onartu zuten (aurrerantzean, HPHP), herritarrek HAPOren proposamena idazteko prozesua ezagutu dezaten eta bertan esku hartu dezaten.

Instituzioek, herritar partikularrek eta parte hartzen duten beste erakunde batzuek eman dezaketen informazioa edo ezagutza eskuratzea da HHPHren helburua, baita haien arazoak, eskariak, iritziak, jarrerak eta Durangoren etorkizunaren gaineko ikuspegia ezagutzea ere. Prozesua erabilgarria eta onuragarria izatea da xedea, udalerriaren hiri- eta lurralde-antolamendurako. Hala, hiru arlo ezberdin proposatzen ditugu: Erakundeen parte-hartzea, teknikarien parte-hartzea eta herritarren parte-hartzea.

Erakundeen eta teknikarien parte-hartzea HAPOren izapideak dituen arau-eskakizunen arabera egiten da. Herritarren parte-hartzea onartutako programa zehatzaren arabera da.

Aurrerakinaren dokumentua idatzi aurretik, honela bete da programa.

Planaren berri emateko jarduketak	Plana egiteko herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduketak	Betetze maila	Egunak
HAPO eta Herritarren Parte Hartzerako Programa zer den azaltzeko eta prozesua martxan jartzeko hitzaldi informatiboa.		Egina	2021eko ekainak 22
	Sektoreko txostenak eskatu eta iritzi-taldeei elkarrizketa sakonak egitea	Egina Egina	2021eko otsaila 2019ko irailetik 2021eko martxora
Webgunean eta sare sozialetan bideoa zabaltzea HAPO zer den azalduz eta parte-hartzera deituz, hizkera erraza erabilita		Egina	2019ko urria.
	Udaleko talde politikoei egindako pertsonalizatuak ² elkarrizketa	Egina	2019ko abendutik 2020ko abendura
HAPO zer den eta nola egin eta onartzen den azaltzen duten dokumentuak		Egina	2021eko uztailetik



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

argitaratzea webgunean.			
	Udal Plangintzako Batzorde Aholkularia osatzen duten pertsonekin elkarrizketa pertsonalizatua (CAPM).	Egina	2020ko urriak 7
	Galdetegia orokorra udalaren webgunearen bidez.	Egina	2020ko irailaren 7tik urriaren 4ra
	Elkarrizketa pertsonalizatuak herritarrekin (foroetan parte hartu ohi duten pertsonak), interesdun elkarteak.	Egina	2019ko irailetik 2021eko martxora
	Iradokizunen kutxa	Egina	2019ko irailetik
	Beti zabalik dagoen helbide elektronikoa (plan@durango.eus)	Egina	2019ko irailetik
	Lantalde espezifikoak sortzeko beharraren balorazioa	Egina	2020ko azaroa
	Tailer tematikoak: haurtzaroa, gaztedia, adinekoak eta genero-ikuspegia. Beste aukera batzuk baloratu	Egina: bitarteko fisikoa, egunerokoa, ekonomia-jarduera, etxebizitza	2021eko ekainetik 2021eko uztailera
Herritarren parte-hartzea baloratzeko txosten partziala			2021eko iraila

Aurrerakina idatzi ostean, kontuan hartu behar da, hasieran aurreikusitakoa ez bezala, ez dela aurre-aurrerakinaren fasean dokumentatu, eta bestalde, aurreikusitako tailer tematikoak 2021eko ekaina eta uztaila bitartean egin zirela; beraz, fase horretan amatu egin gabeko jarduketak fase honetan egingo direla. HAPOn irizpideak eta helburuak finkatu aurretik egin behar dira eta hurrengo hauek dira:

FASEA	Planaren berri emateko jarduketak	Plana egiteko herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduketak	Planaren berrikuspen kritikoa egitea ahalbidetzen duten jarduketak
2. Aurre-aurrerakina	Udalaren webgunean Informazio Urbanistikoaren dokumentua jartzea.	Udal Plangintzako Batzorde Aholkulariarekin lan-saioak egitea	
	Aurre-aurrerakinaren dokumentua azaldu eta aurkeztea.		
	Udalaren webgunean aurre-aurrerakinaren dokumentua jartzea.	Iradokizunen kutxa	
		Beti zabalik dagoen helbide elektronikoa.	
	Herritarren parte-hartzea baloratzeko txosten partziala		



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

3. AURRERAKINA		Udal Plangintzako Batzorde Aholkularia txostena egiten laguntzea Udal Plangintzako Batzorde Aholkulariarekin prestakuntza-bilerak egitea	
		Tailer tematikoak: haurtzaroa, gaztedia, adinekoak eta genero-ikuspegia. Beste aukera batzuk baloratu	
	Liburuxka-triptikoa zabaltzea /Panel informatiboak	Iradokizunen kutxa	
	Aurrerakinaren dokumentua azaldu eta aurkeztea.	Beti zabalik dagoen helbide elektronikoa.	
	Udalaren webgunean aurrerakinaren dokumentua eta IAE jartzea. Onartu ondoren.		
4. AURRERAKINAREN EDUKIAREN INGURUKO PARTE HARTZEA ETA HAPO-REN IRIZPIDEAK FINKATZEA	Laburpen dokumentua eta laburpen exekutiboa.		
			Aurrerakinaren dokumentua publikoki aurkeztea.
	Prentsan argitaratzea.		Pertsona interesdunen arreta pertsonalizaturako zerbitzua
	Alderdi politikoen jarreraren publiekurreportajea egin eta argitaratzea (Durangon eta Anboton).		Aurkezpen Publikoan erantzun individualizatua ematea.

Aurrerakinaren Dokumentua idazteko Herritarren Parte Hartze Programak hainbat jarduera proposatzen ditu Planaren garapenean zehar herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta egun hauetan egin dira:

- Udal webguneko inkesta orokorra (2020ko irailaren 7tik urriaren 4ra).
- Eragile askoren elkarriketa pertsonalizatuak (2019ko iraila eta 2021eko martxoa artean).
- Saio didaktikoa (2021eko ekainak 22)
- Ingurune fisikoari buruzko tailer tematikoa (2021eko ekainak 14)
- Eguneroko Durangori buruzko tailer tematikoa (2021eko ekainak 29)
- Ekonomia-jardueri buruzko tailer tematikoa (2021eko uztailak 6)
- Etxebizitzi buruzko tailer tematikoa (2021eko uztailak 13)

Jarraian, labor azalduko ditugu jarduketa bakoitzaren helburua, metodologia eta emaitza.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Prozesu parte-hartzaileari buruz sortutako dokumentazio eta material guztia publikoaren eskura dago <https://partehartu.durango.eus/pgou-hapo> webgunean, eta emaitzaren dokumentuak eta jarduketa bakoitzaren ondorioak aurrerakinaren eranskin gisa txertatu dira.

4.2. Galdetegi orokorra udalaren webgunearen bidez

Inkesta hori eskuragarri egon da webgunean, 2020ko irailaren 7tik urriaren 4ra, modu irekian erantzun ahal izateko. Inkestaren edukia Udaleko bulego teknikoak proposatu zuen, erraz eskuratzeko eta ulertzeko modukoa izan zedin.

Abian jarri eta komunikazio-bideetan eta Durangoko etxebizitza guztietako postontzietan iragarri ostean, 117 pertsonak hartu dute parte. Laburpena eta ondorioak **“Durangoko HAPOran aurretiazko inkesten emaitza” dokumentuan** daude jasota.


4.3. Elkarrizketak.

Inkesten eskemari jarraituz, elkarrizketa pertsonalizatuak egin dira hainbat udal eragilerekin, eta 61 pertsona elkarrizketatu dira guztira.

Elkarrizketetan parte hartu duten 61 pertsonetatik lortutako emaitzak **“Durangoko HAPOrako LPParen elkarrizketen emaitza”** dokumentuan daude gordeta, eta jarraian laburbilduko ditugu, HAPOran legezko helburuari dagokionez interesekoak izan daitezkeen elementuei dagokienez.

Dokumentuak atal hauek ditu:

- Durangoko nortasunaren iruditegia
 - o Ezaugarri positiboak
 - o Ezaugarri negatiboak
 - o Durango definitzen duten lekuak.
- Eguneroko Durango.
 - o Ondo sentiarazten zaituzten lekuak
 - o Herriko zer lekuk ematen dute aukera eroso esertzeko, elkartzeko, jolasteko edo zaintzeko? Eta zure auzoko zer herrik?
 - o Jarduera-fokuak
 - o Non egiten dituzu zure aisialdiko jarduerak herrian?
 - o Badago segurtasunik ematen ez dizun lekurik edo pasabiderik?
 - o Ekipamendu nagusiak ongi komunikatuta al daude auzoarekin, kotxea erabili beharrik gabe?
 - o Erraza al da etxebizitzaren, lantokien, ekipamenduen eta saltokien arteko joan-etorriak kateatzea?
 - o Erraza al da ohiko desplazamenduetan garraio publikoa erabiltzea?
 - o Lantoki nagusiak ongi komunikatuta al daude auzoarekin, kotxea erabili beharrik gabe?
- Durango auzoz auzo
 - o Alde zaharra
 - o Erdigunea
 - o San Roke – Aramotz
 - o Zabalarra – Mikeldi
 - o Madalena
 - o Landako
 - o San Fausto
 - o Santi Kurutz – Juan Itziar
 - o Tabira
 - o Landa-eremua



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Dokumentuak etorkizuneko Durangorako helburu orokorreari buruzko hautemateak biltzen ditu, eta bloke hauetan daude banatuta:

- Etorkizuneko Durango definitzeko baieztapenak
- Lehenetsi beharreko ekintzak

HAPO berrian jorratu daitezkeen gai hauek ere jorratu dira:

- Hiri-berroneratzea
- Hiri-habitata
 - o Espazio libreak
 - o Ekipamenduak: hezkuntza, kultura, gizartea, osasuna, kirola, merkatu-plaza, beste batzuk.
 - o Jarduera ekonomikoak
 - o Etxebizitzak
 - o Mugikortasuna: oinezkoak, bizikletak, motordun ibilgailuak, modalitate anitzekoak.
- Landa-habitata eta ingurune fisiko eta naturala
- Zeharkako gaiak: Irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, lurralde arteko harremana, klima-aldaketa, osasuna, euskara.

4.4. Saio didaktikoa


2021eko ekainaren 14an saio didaktikoa egin zen San Agustin Kultur Gunean eta HAPOri ezarritako konplexutasun urbanistikoaren ezaugarri orokorrak azaldu ziren. Arreta berezia jarri zen araudi-esparruan, bai eta etorkizuneko udalerrirako kontuan izan behar diren alderdi eta baldintzatzaile nagusietan ere. Gainera, lau saio tematikoen dinamika azaldu zen (ingurune fisikoa, eguneroko Durango, ekonomia-jarduerak eta etxebizitza), HAPOrako helburu eta irizpide orokorrak landu ahal izateko.

4.5. Ingurune fisikoaren tailer tematikoa

Tailer tematikoen saio guztiek bi fase dituzte. Lehenengo urratsean, HAPOk antolatu behar dituen arloen azterketa proposatzen da. Horretarako, partaideek eragiten dieten baldintzatzaile tematikoen inguruan hitz egiten dute, eta HAPOn baloratu beharko liratekeen erronkak eta ahalmenak identifikatzen dituzte. Bigarren urratsa HAPOrako proposamen estrategikoaren inguruan gogoeta egitea da. Horretarako, hasieran udalak planteatu zituen irizpideak eta helburuak aztertu, moldatu, zehaztu edo ordezkatzea proposatzen da. Ekarpen horiek guztiak udalak baloratuko ditu eta hark izango du azken hitza Aurrerakinean edo HAPOn garapenaren hurrengo faseetan kontuan nola hartu, zer modutan eta zer neurriraino islatu erabakitzeko. Lehenengo saio tematikoan 24 pertsonak hartu dute parte erakundeko 5 kiderekin batera (2 teknikari, 2 dinamizatzaile, eremuaren arduradun 1).

Arlo hauek aztertu dituzte:

- UE Karmeldarren komentua
- UE Traza I
- PP Eguzkitza II
- UE Iparzabalarra
- UE Tabira



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- UE Traza II

Arlo horien azterketa partikularretik jaso dira arlo hauen inguruko HAPOn helburuak eta irizpideak zehazterakoan kontuan izan beharreko ekarpenak:

- Biodibertsitatea eta natura
- Ondarea eta paisaia
- Klima-aldaketa eta kutsadura
- Hiri-berroneratzea
- Aukera estrategikoak
- Irisgarritasuna
- Osasuna

4.6. Eguneroko Durangori buruzko tailer tematikoa


Bigarren saio tematikoan 27 pertsonak hartu dute parte erakundeko 6 kiderekin batera (3 teknikari, 2 dinamizatzaile, eremuaren 1 arduradun).

Arlo hauek aztertu dituzte:

- UE Karmeldarren komentua
- UE Santa Susana komentua
- UE Intxaurrondo
- PERI trenbidea
- PP Eguzkitza II
- UE Traza II

Arlo horien azterketa partikularretik jaso dira arlo hauen inguruko HAPOn helburuak eta irizpideak zehazterakoan kontuan izan beharreko ekarpenak:

- Hiri-berroneratzea
- Mugikortasuna
- Ekipamendu publikoak
- Aukera estrategikoak
- Irisgarritasuna
- Genero-ikuspedia



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Lurralde arteko harremana
- Osasuna
- Euskara

4.7. Ekonomia-jarduerei buruzko tailer tematikoa


Hirugarren saio tematikoan 29 pertsonak hartu dute parte erakundeko 6 kiderekin batera (3 teknikari, 2 dinamizatzaile, eremuaren 1 arduradun)

Arlo hauek aztertu dituzte:

- UE Intxaurrondo
- PP Eguzkitzagoiena
- UE Iparzabalarra
- UE Fundifes
- PERI Artabilla
- UE Eguzkitza III
- UE San Roke
- UE Tabiragunea
- PERI trenbidea
- UE Santa Susana komentua

Arlo horien azterketa partikularretik jaso dira arlo hauen inguruko HAPOren helburuak eta irizpideak zehazterakoan kontuan izan beharreko ekarpenak:

- Jarduera ekonomikoa
- Klima-aldaketa
- Mugikortasuna
- Aukera estrategikoak
- Genero-ikuspegia
- Lurralde arteko harremana
- Osasuna



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

4.8. Etxebizitzaren tailer tematikoa

Laugarren saio tematikoan 23 pertsonak hartu dute parte erakundeko 6 kiderekin batera (3 teknikari, 2 dinamizatzaile, eremuaren 1 arduradun).


Arlo hauek aztertu dituzte:

- UE Tabira
- UE Intxaurrondo
- PP Eguzkitzagoiena
- UE Birjinoste
- PERI Artabilla
- PERI trenbidea
- UE Karmeldarren komentua

Arlo horien azterketa partikularretik jaso dira arlo hauen inguruko HAPOren helburuak eta irizpideak zehazterakoan kontuan izan beharreko ekarpenak:

- Bizileku kopurua areagotzea.
- Mugikortasuna
- Ekipamendu publikoak
- Aukera estrategikoak
- Irisgarritasuna
- Genero-ikuspegia
- Lurralde arteko harremana
- Euskara

HAPOren Aurrerapenaren dokumentuak, helburu, irizpide eta konponbide orokorren atalean, erredakzio-taldeak egokitzen eta koherentetzat jo dituen proposamenak jasotzen ditu, HAPOk lortu beharko lituzkeen gainerako helburu eta irizpideekin bat datozenak, eta hirigintza-dokumentu honen lege-xedearekin zerikusia dutenak.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

5. HAPO-REN AURRERAKINAREN FASEAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA

5.1. Sarrera

Herritarren parte-hartze programaren barruan egindako prozesu parte-hartzailea HAPOn genero-ikuspegia txertatzeko beste prozesu parte-hartzaile batekin osatu da. Proiektua Udaleko Bulego Teknikoak eta Berdintasun Sailak sustatu du eta helburua eguneroko bizitzako beharrak eta lan erreproduktiboak Durangoko etorkizuneko estrategia urbanistikoetan txertatzea da.

Hiri-eremu feministak sustatzeko gogoan izan behar da hiriak erabili eta bizitzeko modu ugari daudela eta, ondorioz, ezinbestekoa dela herritarren ezagutza eta esperientziaren balioa nabarmentzea plangintza urbanistikoa egiterakoan. Alde horretatik, garrantzi berezia hartzen dute emakumeek, izan ere, historikoki prozesu urbanistikoetatik kanpo egon izan dira, baina tradizioz izan duten zaintzaile-rolarengatik, besteak beste, haurren, adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen inguruko ezagutza sakonak dituzte.


Nabarmendu behar da gure udalerriak hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko izan duen ibilbidea. 2006an egin zen lehenengo Hiri Debekatuaren Mapa eta bi alditan berrikusi zen (2012 eta 2016). Hala, pixkanaka zabaldu egin da segurtasunaren ikuspegia, eta zaintzak eta auzokideen arteko topaketak zailtzen dituzten eremuak ere identifikatu dira. Gerora, 2018an, urrats handia eman zen "Ingurumena hobetzeko eta etxebizitzaren eta bulegoen eraikuntzan genero-ikuspegia txertatzeko Agindua" dokumentuan genero-ikuspegia txertatu zenean. Proiektu horren bitartez, hirigintza inklusiboaren inguruko prestakuntza egin zen Bulego Teknikoarekin, Berdintasun Sailarekin eta Gaztedia Sailarekin, eta, gainera, jauzi kualitatiboa izan zen tresna urbanistikoetan berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea.

Udal-hirigintzan egindako lanari jarraipena emateko eta berdintasuna modu egituratu eta estrategikoan txertatzeko, Durangoko HAPO idazteko herritarren parte-hartzea izan da, bizitza jasangarria bermatuko duten hiri-eremuak sortzeko aurrera pausoak emateko.

Prozesua 2020ko uztailan hasi zen webgunean galdetegia argitaratu, sare sozialetan zabaldu eta triptikoa postontzietan banatu zenean. Udalerriko eguneroko bizitza erraztu edo zailtzen duten baldintzetan sakontzea zen asmoa. Jendea zer tokitan bildu eta harremanak non izaten dituen, zaintzak zer tokitan errazten diren, auzoetan merkataritza nola banatzen den edo jarduera horiek egiteko ohiko ibilbideak zein diren jakitea. Galdetegian bildutako informazioarekin, urrian udalerraren hiri-diagnostikoa egin zen genero-ikuspegitik eta sare sozialen eta bideozko komunikazioen bidez zabaldu zen. Gero, tailer batzuk antolatu ziren azaroan, diagnostiko hori osatu eta hobetzeko proposamenak egiteko.

Herritarrek egin zituzten ekarpenen edukiari dagokionez, hurrengo gaietan oinarritu ziren:

- Kalean harremanak izateko eremuak hobetzea: eserlekuen ezaugarriak eta kokapena hobetzea, estalitako eremuak izateko beharra, haurrek jolasteko eremuak hobetzea, naturaren presentzia, etab.
- Ekipamendu berrien beharra: frontoien erabilera ahalbidetzea, kirol ekipamendu berriak, adinekoentzako eta gazteentzako topaguneak, erabilera gutxi duten ekipamenduak aktibatzea (merkatua eta Landako Erakustazoka).
- Oinezkoen mugikortasuna hobetzea: bideko eta oinezkoentzako argiteriaren intentsitatea areagotzea, lurzorua konpondu edo aldatzea, espaloien zabalera handitzea, zebra-bideen kokapena eta ikusgarritasuna.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Bizikletaren mugikortasunaren kalitatea hobetzea: bidegorrien lotura, puntu arriskutsuak, bizikletentzako aparkalekuak.
- Segurtasuna: beldurra sortzen duten toki bakartiak edo autoengatik seguruak ez direnak.
- Auzo jakin batzuen inguruko arazo orokorrak: Faustebekoa taldea, Bustintza gunea, Ziritza, Juan Itziar auzoa eta Alde Zaharra.
- Ingurunearen zaintza eta mantentze-lanak: garbiketa, hondakinen edukiontzien kokapena, lorategien mantentze-lanak, treneko hesi zaharrak kentzea.
- Hirigintza-prozesuetako herritarren parte-hartzea: auzokoen bilerak, udal-langileekin dagoen harremana, gardentasuna eta kontuak ematea, mekanismo analogikoen mantentze-lanak.

Aipatu beharra dago herritarren ekarpenak ekintza oso zehatzak egiteko proposamenak izan direla (X katean X arazo dago).

Ondorioz, jasotako proposamen zehatzak antolatu eta aparteko dokumentu batean jaso dira, udalaren alderdi tekniko eta politikoari helarazteko, eta estrapolatu egin dira jasotako azpian dauden arazoak hautemateko. Hala, HAPOn Aurrerakinera egokitu eta dokumentuan txertatzea ahalbidetu da.

Lan horri dagokion dokumentazioa bere eranskinean dago.

Ekarpen horiek guztiak udalak baloratuko ditu eta hark izango du azken hitza Aurrerakinean edo HAPOn garapenaren hurrengo faseetan kontuan nola hartu, zer modutan eta zer neurriraino islatu erabakitzeko.


5.2. HAPOn irizpideak eta helburuak elikatu behar dituzten jarduketa-ildoak

Egindako lanaren ostean, HAPOk genero-ikuspegia txertatzeko izan beharko lituzkeen helburuak zehaztu dira eta horiek gauzatzeko jarduketa-ildo batzuk ezarri.

Atal honetan jaso ditugu HAPOn gogoetara eramaten duten jarduketa-ildoak, udalaren inbertsioa besterik eragingo luketen jarduketak izan ezik.

1. ardatza: Hiri-egitura eta etxebizitzaren inguruneen kalitatea: hirigintza-eredu konpaktua, jarraitua, trinkoa, konplexua eta kohesionatua

HELBURUAK	JARDUERA ARDATZAK
1. helburua: Artifizializatuak izan ez diren lurzoruetan etxebizitza berriak garatzea ekiditea, zehazki udalerriaren hegoaldean dauden lurzoru urbanizagarrietan.	
2. helburua: Etxebizitzaren hiri-lurzoruan garapen berriak planifikatzeko prozesuetan genero-ikuspegia modu sistematikoan eta zeharka txertatzea.	HAPOkiko independentea den diseinurako irizpide orokorren dokumentua onartzea, sektore berrien garapen-prozesuetan kontuan izan beharreko jarraibide batzuekin, generoaren zeharkako ezaugarriak modu sistematikoan txertatzea bermatzeko.
3. helburua: Egungo hiri-bilbea jostea.	Lurzoru berriak artifizializatu eta hiri-eremua zabaltzeko aurretik, hirian dauden hutsuneen garapena lehenetsi behar da eta hiri-bilbea lokatzez bete, esaterako: tren-geltokiaren inguruan (PERI-



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

	1 trenbidea), San Faustorekiko loturan (PERI-2 San Fausto), Bustuntza-Ziritza blokeen loturan (PERI-3 San Roke) edo Juan Itziarkoaren inguruan (UE-10 Montorreta-Larrasoloeta). Hainbat puntutan iragazkortasuna eta lotura areagotzea: trenbidearen trazadura zaharrean dauden zatietan, udalerriko eremurik altu eta baxuenetan (Erdigunea- Santa Kurutz eta San Fausto - hilerria - Tabira) edo Faustebekoa taldean eta bere inguruan.
4. helburua: Auzoen arteko lotura, eguneroko ekipamenduak eta merkataritza-gune nagusiak hobetzea.	Auzoak ekipamenduekin eta erdigunearekin lotzen dituzten kale nagusien ezaugarriak hobetzeko udal-agindua ezartzea, eta, horretarako, kale horiek bete beharko lituzketen gutxieneko ezaugarriak zehaztea. Bidegorrien bitartez auzoak, ekipamenduak eta merkataritza-gune nagusiak lotzea, Sanrokebide eta Zumarragako Fray Juanetik trazadura handituz eta Tabirako zatiarekin lotuz.
5. helburua: Jarduera ugari gertu dauden eremu mistoak sustatzea.	Askatasun etorbidea, Zeharmendieta kalea eta Antso Estegiz zumardiko merkataritza-ardatzak indartu eta jarraipena ematea. Etxebizitza-eraikin berrietan etxabe irekiak eta kalearekin lotuta daudenak sortzea estrategia hauen bitartez: etxabeak kalerantz zabaltzea, merkataritzara-jardueratako gutxieneko bat bermatzea, kultur, kirol edo jarduera sozialetarako instalazio komunak sortzea. HAPO diseinatzeko irizpide orokorretatik independentea den dokumentua onartzea, eraikinak kaleekin konektatuko dituzten eta fatxada dinamikoak sortuko dituzten eraikuntza berriak (etxebizitzak, hornidurak, etab.) egin behar izateko, irizpide hauen arabera: Blokeen luzera mugatzea (150m-tik gorakoek barrera-efektua areagotzen dute); eraikinen eta kalearen arteko ikusizko harremana sustatzea (6 solairu baino gehiagorekin eten egiten da harremana); fatxada homogeen eta opakuak ekiditea.
6. helburua: Auzoak berroneratzea eta hobetzea.	

2. ardatza: Mugikortasuna eta espazio publikoa: pertsona guztientzako kaleak

7. helburua: Oinezkoen mugikortasun autonomia sustatu eta lehenestea.	HAPOn Mugikortasun Plana bideragarri egiteko “disuasio-aparkalekuak” txertatzea, bidegorriarekin edo garraio publikoarekin lotuta dauden aparkalekuen poltsak sortzeko eta, hala, auzo eta udalerrri barrutik autoarekin ibiltzea murrizteko. Hirigintza-agindu batean oinezkoen pasabideetan ikusgaitasuna hobetzeko beharra txertatzea, eta, horretarako, espaloia
---	--



DURANGO

Udala • Udala


Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

	aparkalekuaren lerroraino zabaltzea, aparkatuta dauden autoek ikustea eragotzi ez dezaten. Hirigintza-agindu batean modu autonomoan edo jendearekin ibiltzeko baldintzak hobetzeko beharra txertatzea, batez ere, ekipamenduak auzoekin eta auzoak elkarren artean lotzen dituzten kaleetan: espaloiares gutxienerako zabalera 2 metro eta bankuak 50-100 metro bakoitzeko.
8. helburua: Kalea egoteko eta topaketarako toki gisa indartzea.	HAPO diseinatzeko irizpide orokorrekiko independentea den dokumentua onartzea biltzeko aukera ematen duten erdibideko eremuak eta ekipamendu publikoen sarreran itxaroteko guneak sortzeko. Horretarako, leku horiek bete beharko dituzten gutxienerako ezaugarriak zehaztu behar dira: Itxaroteko bankuak jartzea, trafikoa baretzeko eremua ezartzea edo espaloiares gutxienerako zabalera 3,5 metrokoa izatea. HAPO diseinatzeko irizpide orokorrekiko independentea den dokumentua onartzea parke, plaza edo atsedenerako eremuetan bankuak jartzerakoan eguzkiaren baldintzak eta altzairuen diseinua eta kokapena kontuan izateko.
9. helburua: Kaleak naturalizatu eta parkeen sarea hobetzea	HAPO diseinatzeko irizpide orokorrekiko independentea den dokumentua onartzea jolas egiteko, egoteko eta atsedent hartzeko estalitako tokiak sortzeko. HAPOren bitartez ibaiaren erriberaren eta ingurunearen harremana eta iragazkortasuna areagotzea, herritarrek erabili eta goza dezaten prestatzeko.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

6. HAPO BERRIRAKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

6.1. HELBURUAK

6.1.1. Helburuen sarrera

Plan Orokor berriaren helburuen xede nagusia desio den hiri-eredua lortzeko parametro orokorrak zehaztea da.

Aurrerakinaren helburua hainbat aukera planteatu eta helburuak horietatik zeinek betetzen dituen hobeto egiaztatzea da. Aurrerakina dokumentuaren helegite edo iradokizunekin osatuko da. Hala, "HAPOren Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide Orokorrak" dokumentua egingo da gerora eta Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusia idaztea arautuko du.

Plan Orokorraren helburu berriak diagnostiko parte-hartzailean hautemandako arazoak eta beharrak konpontzeko eta desiratutako hiri-eredua lortzeko proposatzen dira. Hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 90. artikulua bainan administrazioei egindako kontsulten emaitzekin, plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko egin den lanarekin eta aurrerakinaren fasean egindako prozesu parte-hartzailearen ondorioekin aberastu da.

Halaber, HAPOk eta hirigunean, eraikuntzetan eta garraioaren azpiegiturretan egindako esku-hartzeek kontuan izan beharko dute klima-aldaketa, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren 7/2021 Legeak 21. artikuluan arautzen duen moduan. Helburu horiek bete izana, HAPOk izan beharko dituen jasangarritasun energetikoko azterketen bitartez egiaztatuko da, besteak beste, Euskadiko jasangarritasun energetikoaren 4/2019 Legeko 7. artikulua arabera.

Hori guztia egiteko kontuan izan behar dira egungo hiri-erabileren mugak eta onartu diren lurralde antolamendurako tresnen xedapenak (LAG, Durangaldeako Eremu Funtzionaleko LPP eta dagozkien LPSak). HAPO hau haien mende egongo da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 52. artikulua agintzen duen moduan.


HAPOren helburuek udalerriko hainbat arlotako beharrei erantzun behar diete, eta haien hiri-hierarkiaren arabera, arazo eta berezitasunei behar bezalako arreta eskaini beharko diete, dagoen hiriko pieza bakoitza berariaz kontuan hartuz. Bestalde, Plan Orokorrak udalerriko arazoei ere erantzun beharko die bere osotasunean: inguruneari, etxebizitzari, ekonomia-jarduerari, komunikazio-sistemei, eremu libreei eta ekipamenduei, azpiegiturari, etab. Azkenik, udalerriaz gaindiko testuinguruari ere erreparatu beharko dio eta, zehatzago esanda, udalerriak osatzen duen hiri-sistemari, eremu funtzionalaren eta herrialde historikoaren barruan sistema horrek duen zeregina indartzeko proposamenak sustatuz, eta gai jakinetan ondoko udalekin batera lan eginez.

HAPOrekin lortu beharko liratekeen helburuak eta horiek lortzeko irizpideak zehaztu ostean, HAPOren aurrerakin honek hiri-garapenerako hainbat aukera desberdin ditu, lau planotan; "0 aukera", "1 aukera", "2 aukera" eta "3 aukera". Hala, 2 eta 3 aukeretan deskribatutako jarduketa bakoitza bereizita jorratu ahal izango da eta askotariko hazkundeak ahalbidetuko lituzketen arloen askotariko konbinaketak sortu ahal izango dira.

6.1.2. Helburu orokorrak eta hiri-eredua

Egindako diagnostiko parte-hartzailearen arabera, Durangok erronka hauei egin behar die aurre herritarren bizi-kalitatea bermatu ahal izateko. HAPO egiteko planteatzen diren aukerek erronka horiei erantzuteko balio ote duten alderatu eta baloratzeko dira helburu horiek.

Durangoren zentraltasuna sustatzea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Eskualdeko Hiriburuaren edo Eremu Funtzionaleko Buruaren zeregina indarrarekin gauzatzea, inguruan eraginez eta alboko lurraldeari ere onurak eskainiz. Honako hau egin beharko du:
- Merkataritzari eta administrazioari dagokionez hirugarren sektore indartsua garatu.
- Ekipamenduetan eta Parkeetan maila altuak lortzea.
- Barneko erreformaren eragiketak egiteko lurzoruak eta ekonomia-jarduerako arloak sortzea eta balio erantsi altua duten ekonomiak erakartzea.
- Egungo eta etorkizuneko aukera-eremuak identifikatu eta kudeatu, ekonomia-jarduera berriak hartzeko.

Hiri konpaktu, jarraitu, trinko, konplexu eta kohesionatuaren garapenean aurrera egitea

- Jardueran, bizitzan eta topaketan aberatsa den hiria lortzeko.
- Garapen sakabanatuak ekiditeko eta erabileren nahasketa sustatzeko.
- Ekipamenduen sare orekatuarekin.
- Herritarren parte-hartzea sustatuz eta genero-ikuspegia txertatuz.

Etengabeko berroneratzea eta hiri-berritzea sustatzea


- Zaharkituta geratu diren edo hiria hobetzeko beharrezkoak diren arloak berroneratzea.
- Hirigintza-ekintzak egitea (trena lurperatzeagatik libre geratutako eremuak, eremu libreen eta parkeen hobekuntza, irisgarritasunaren hobekuntza...).
- Klimaren arrisku eta zaurgarritasunetara egokitzea, pertsonen osasuna zainduz.

6.1.3. Ingurumeneko eta garapen jasangarriko helburuak

Artikulu hauetan ageri diren printzipioak izan behar dira oinarri HAPO egiterakoan :

- 21/2013 Legearen 2. artikulua, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 1. eta 2. artikulua, 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, plan eta programen ingurumen-estrategiaren ebaluazioaren prozedura arautzen duena.
- 3. artikulua, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 3. eta 20. artikulua, 20ko 7/2015 Errege Lege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu batagina onartzen duena.
- 1. eta 3. artikulua, 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 2. eta 3. artikulua, 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioari buruzkoa.
- 2. artikulua, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 1., 6. eta 17. artikulua, 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa.
- 3. artikulua, 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
- 3., 99. eta 100. artikulua, 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Jasangarriari buruzkoa.
- 5. eta 7. artikulua, 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikaduraren Politikari buruzkoa.
- 5, 6. eta 7. artikulua, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.
- 1, 2, 3, 8, 14 eta 21. artikulua, 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.

Horren arabera, hauek dira **ingurumeneko eta garapen jasangarriko helburuak**:



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Hiri Plangintzan agindu daitezkeen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen direla bermatzea.
- Lurraldearen erabilera orekatua lortzea.
- Lurzoru berrien artifizializazioa mugatzea garapen urbanistikoak eta azpiegiturak ezartzeko.
- Lurzoruaren kudeaketa optimoa lortzea kutsadura historikoa berreskuratuz eta kutsadura mota berrien prebentzioa eginez.
- Pertsonen osasuna zaintzea eta pobrezia energetikoa murriztea.
- Motordun ibilgailuen alferrikako erabilera murriztea. Pertsonen mugikortasun-eskaera kudeatzea, garraio modala hauetara bideratuta: oinez ibiltzera, bizikletara eta garraio kolektibora.
- Hain motorizatuta ez dagoen mugikortasuna sustatzea: seguruagoa, osasungarriagoa eta hurbilagoa.
- Energiaren kontsumoa murriztea, eta eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Biodibertsitatearen galera saihestea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendu jasangarria babestuz eta zaharberrituz. Lurraldean konektagarritasun ekologikoa hobetzea.
- Baliabide naturalen kontsumo arduratsua sustatzea.
- Hondakinen sorrera murriztea eta kudeaketa hobetzea.
- Ur-masen egoera ekologiko egokia lortzea eta honda daitezen eragozte.
- Airearen kalitatea hobetzea.
- Zarataren eta argiaren kutsadura prebenitu, zaindu eta murriztea.
- Paisaien babes, kudeaketa eta antolamendua sustatzea.
- Arrisku natural eta teknologikorik ez sortzea edo, hala badagokio, ezabatzea.
- Berotegi efektuko gas-isuriak mugatzea.
- Klima-aldaketarako egokitzapena kudeatzea eta aurreikusitako eraginen zaurgarritasuna minimizatzea.

6.1.4. Ingurune fisikoaren plangintzaren helburuak

Helburu nagusietatik abiatuta eta ingurumeneko eta garapen jasangarriko irizpideak kontuan hartuz, ingurunearen gaineko plangintzaren helburu hauek zehaztu dira, eta diagnostiko parte-hartzailetik abiatuta, aurrerakinaren faseko prozesu parte-hartzaileetatik landu dira.

- **Biodibertsitatea eta natura:**
 - o Hiriko berdeguneen eta ingurune naturalen arteko konektagarritasuna hobetzea.
 - o Lurzorua baliabide eskasa denez, landa-eremuko lurzoruak edo lurzoru naturalak okupatzea eragozte.
 - o Baso-masa publikoen baso-kudeaketa jasangarria.
- **Kultura eta paisaia ondarea**
 - o Ibilbide turistikoak eta paisaiaren gozamena sustatzea.
 - o Ibaiaren balioa indartzea, bizi-kalitatea hobetzeko elementu gisa.
 - o Kultur ondareari balioa ematea.
- **Klima-aldaketa eta kutsadura**
 - o Uholdeen arriskua murriztea.
 - o Berdeguneetarako eta elkarren artean lotutako sare berdeetarako irisgarritasuna areagotzea, bero-irlen efektua murriztuz.
 - o Berotegi efektuko gas-isuriak murriztea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

6.1.5. Hiri-ingurunearen gainean plangintzak dituen helburuak

Helburu nagusietatik abiatuta eta ingurumeneko eta garapen jasangarriko irizpideak kontuan hartuz, hiri-ingurunearen gaineko plangintzaren helburu hauek zehaztu dira, eta diagnostiko parte-hartzailetik abiatuta, aurrerakinaren faseko prozesu parte-hartzaileetatik landu dira.

- **Bizileku kopurua areagotzea.**
 - o Etxebizitza irisgarria sustatzea.
 - o Etxebizitzen parkea optimizatzea, etxebizitza gehiago izateko.
 - o Beharrezko gutxieneko hazkundera, jarduketa-eremuan dagoenarekin bat datorren dentsitatea duten jarduketekin
- **Hiri-berroneratzea**
 - o Birgaitzeko jarduketak behar dituzten auzoak edo eremuak identifikatzea.
 - o Eraikinen birgaitzea sustatzea eta eraikita dagoena finkatu eta sustatzeko jarduketak egitea.
- **Mugikortasuna**
 - o Mugikortasuna planifikatu eta kudeatzea, alboko udalerriekin lotuta dagoen sarea lortzeko.
 - o Mugikortasun-aukera ugariak lotzen dituen eta oinez eta bizikletaz egindako lekualdatzeak lehenesten dituen garraio-sarea lortzea, udalerrri barruan motordun mugikortasuna murrizteko.
 - o Lurzoru urbanizaezinak herritarrei hurbiltzea erabili eta gozatzeko, oinez eta bizikletaz hiri kanpoko eremuetara heltzeko bideak hobetuz, eta udalerriko eta udalerrri kanpoko ekipamenduekin lotuta dagoen oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea hobetuz.
 - o Oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatzea, herritar guztientzako erabilgarria eta irisgarria izateko, pertsonen mugikortasunerako eremu osasungarriak eta berdeak sustatuz.
- **Ekipamenduak eta zuzkidura publikoak**
 - o Eremu libreen eta berdeguneen sarea zabaltzea, herritar guztiei zerbitzu egokia eta jasangarria eskaintzeko, eta egungo ekipamenduen sarea hobetu eta egokitzea.
- **Jarduera ekonomikoa**
 - o Eguzkitzan industrigunea garatzea ahalbidetzea.
 - o Etxebizitzekin eta hirugarren sektorearekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak txertatzea hiriko lurzoruan.
- **PERI-I trenbidea**
 - o Herritarrek PERI-I trenbidearen inguruan hartu duten erabakia aurrera eramatea.
- **Aukera estrategikoak**
 - o Eraldatuta dauden lurzoruak berrerabiltzea.
 - o Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea.
 - o Eremuak klima-aldaketara egokitzeko hobekuntza egitea.
 - o Eskualdeko eta eremu funtzionaleko hiriburua izateko ekipamenduen estrategia egitea, kultur jarduerak, hezitzaileak eta sustapen ekonomikora bideratutakoak erakartzeko.
 - o Durango merkataritzarako eremu ireki, irisgarri, atsegina eta jasangarria izatea.
- **Zeharkako gaiak:**
 - o Irisgarritasuna. Zerbitzuen eta berdeguneen irisgarritasuna hobetzea
 - o Genero-ikuspegia. Plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko lanean zehaztuta diren irizpideak HAPOn sartzea:
 - o Lurralde arteko harremana. Intermodalitatea hobetzea.
 - o Osasuna. Airearen kalitatea hobetzea, zarataren eragina murriztea eta berdegune zabaletarako irisgarritasuna hobetzea herritar guztientzat.
 - o Euskara. Plangintzan eragin linguistikoa txertatzeko aukera aztertzea eta balizko aukeretan kontuan hartzea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

6.1.6. Plana garatu eta kudeatzeko helburuak

Plana behar bezala garatu eta kudeatzeko helburu hauek finkatu dira:

- Planaren ingurumeneko bideragarritasuna.
- Planaren bideragarritasun programatiko eta ekonomikoa.
- Tokiko ogasunerako planaren bideragarritasun ekonomikoa.
- Planaren kudeaketa egingarria.
- Eremu publikoak, erabilera publikorako eremu pribatuak eta eremu pribatuak bereiztea, lurzorua jabetzaren erregimen juridikotik eratorritako eskubideak eta betebeharrak argitze aldera.

6.1.7. Koordinaziorako helburuak.

HAPO bere maila bereko edo goragoko beste antolamendurako tresna batzuekin koordinatzeko helburu hauek zehaztu dira:

- Plan Orokorra eta haren proposamenak indarrean dauden lurralde- eta sektore-antolamenduko tresnetan jasotako aurreikuspenetan integratzea. Horrek esan nahi du, besteak beste, proposamen horiek tresna horien barruan dauden aurreikuspen lotesleetara egokitu behar direla gutxienez.
- Udal mugakideekin edo Planak jasotzen dituen proposamenen eraginpean dauden udalekin koordinazioa sustatzea; izan ere, Planaren afekzioak udalerriko mugetatik harago hedatu ohi dira askotan.

6.2. IRIZPIDEAK


6.2.1. Irizpideen sarrera.

HAPO berriaren helburuak finkatu ostean, jarraian, desio den hiri-eredua lortzeko erabilitako irizpideak zehaztuko dira.

Aurrerakinaren helburua hainbat aukera planteatu eta helburuak horietatik zeinek betetzen dituen ondoen egiaztatzea da. Aurrerakina dokumentuaren helegite edo iradokizunekin osatuko da. Hala, "HAPOren Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide Orokorrak" dokumentua egingo da gerora eta Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusia idaztea arautuko du.

Plan Orokorrak berria diseinatzeko erabili beharreko irizpideak aurreko atalean aipatutako helburuak betetzeko proposatzen dira. Helburuak zehazteko egin den moduan, irizpideak finkatzeko kontuan izan behar dira egungo hiri-erabileren mugak eta onartu diren lurralde antolamendurako tresnen xedapenak (LAG, Durangaldeako Eremu Funtzionaleko LPP eta dagozkien LPSak). HAPO hau haien mende egongo da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 52. artikulua agintzen duen moduan.

HAPOrekin lortu beharko liratekeen helburuak eta horiek lortzeko irizpideak zehaztu ostean, HAPOren aurrerakin honek hiri-garapenerako hainbat aukera desberdin ditu, lau planotan; "0 aukera", "1 aukera", "2 aukera" eta "3 aukera". Hala, 2 eta 3 aukeretan deskribatutako jarduketak bakoitza bereizita jorratu ahal izango da eta askotariko hazkundeak ahalbidetuko lituzketen arloen askotariko konbinaketak sortu ahal izango dira.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

6.2.2. Irizpide orientatzaile orokorrak

Hirigintza-antolamendurako ahala interes publikoaren menpe egongo da, informazio nahikoan oinarrituta, interes guztiak arrazoituta eta modu eragingarri eta proportzionatua haztatuta.

Hirigintza-antolamenduak interes publiko hau bermatu beharko du:

- Herritarrek eskubidea dute etxebizitza duina eta haien beharretara egokitzen dena izateko, garapen ekonomiko orekatua izateko, eta haien beharretara egokitzen den hiri-ingurune eta naturguneaz eta kultur ondarea osatzen duten ondasunez gozatu ahal izateko.
- Era berean, herritarrek eskubidea dute hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioan parte-hartzeko.
- Administrazioek hirigintza-planetako aurreikuspenak betetzen direla ikuskatu behar dute, haien kalitateari, kantitateari eta egikaritze-epeei dagokienez, eta, beren eskumenen barruan, lurzorua eta etxebizitzaren espekulazioa saihestu behar dute; horretarako, lurzorua eta ondasun higiezinaren merkatuan esku hartzeko beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte.

Bestalde, kontsiderazio orokor hauek dira planaren egitura osatzen duten alderdien markoaren oinarria:


- Hirigintzak kontuan izan behar du hiri-plangintzaren eta lurralde-antolamenduaren arteko harremana.
- Ingurune fisikoa lehen mailako baldintzatzailea da hirigintzaren garapenerako eta ingurunearen babeserako irizpideei dagokienez.
- Lurraldearen antolamenduko erdibideko eskalan berezko zehaztapenak dituen Eremu Funtzionaleko I. antolamendua erabakigarria da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra tokiko eskalan kokatzeko. Durangoren kasuan, baldintzatzaile nagusia Durangaldeko Eremu Funtzionaleko LPtik sortzen da.
- Hiriko planak hiriaren itxura fisikoa zehaztu behar du, eta arkitekturaren eta hirigintzaren arteko koherentzia izaten ahalegindu behar du.
- Esparru sozioekonomiko eta demografikoak zehazten du plana definitu eta kudeatzeko irizpideen hautaketa.

6.2.3. Ingurumeneko eta garapen jasangarriko irizpideak

HAPOk behar bezala justifikatu beharko du etxebizitzaren eta industriaren balizko garapen berrien eskaria eta dimentsionamendua. Planteamenduak erantzun beharreko beharrak zorrotz aztertzen dira, aurreikusitako garapenen gehiegizko dimentsionamendua saihestuz. Nolanahi ere, Plan Orokorra udalerriak garapen urbanistiko berrientzat duen harreraren azterketa jaso behar du.

Aipatutako ingurumeneko eta garapen jasangarriko helburuekin bat egiten duten ingurumeneko eta garapen jasangarriko irizpide hauek zehaztu dira:

- Dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, bereziki landa eta natur lurzorua babestuz. Nekazaritzarako balio altua duten lurzorua beste erabilera batzuetarako birkalifika daitezkeen ekiditea.
- Udalerriko hiriguneetan eraikitako eta urbanizatutako ondarea berroneratzea eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea lehenestea.
- Kutsatutako lurzoruen berreskurapena lehenestea lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- Hiri-segregazioa eta -sakabanatzea saihestea, erabilera edo jarduera desberdinen integrazioa eta kohesio espazial egokiari eutsi ahal izateko, mugikortasunaren sorrera murrizte aldera.
- Hiri-egitura trinkoak, konpaktuak eta konplexuak sustatzea planteatutako beharrei erantzuteko. Eraikinen dentsitate nahiko altuak sortzea.
- Lurzorua erabilerak modu misto eta malguan planifikatzea.



DURANGO

Udala • Udala


Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Garapen berriak kokatzea garraio publikorako edota auto pribatuaz bestelako garraiobideetarako irisgarritasun ona duten lurzoruetan.
- Iturri berriztagarrietatik datorren energian oinarritutako energia-hornidurarako sistema deszentralizatuen bidez energia hornidura bideragarria, erraza eta azkarra izango duten lurzoruetan garapen berriak kokatzea.
- Garapen berriak energia-efizientzia pasiborako baldintza egokiak dituzten lurzoruetan kokatzea.
- Garapen berriak uretako ingurunea, bertako zerbitzuak eta ingurunea kontserbatzea ahalbidetuko duten lurzoruetan kokatzea.
- Uholdeak izan ditzaketen eremuetan hirigintzako garapen berriak koka daitezen saihestea.
- Hirigintzako garapen berriek arrisku naturalak sor ditzaten edo, hala badagokio, eragotz ez ditzaten ekiditea.
- Egoera naturaleko ibilguen zuzenketa edo kanalizazioa ekiditea.
- Garapen berriak eskari berriei erantzuteko nahikoa ur-baliabide egotera baldintzatzea.
- Garapen berriak haietarako zerbitzu egokia bermatuko duten ur hornidura eta saneamendu sareetarako sarbidea duten lurzoruetan kokatu beharko dira.
- Komunitateko interesa duten habitatak honda daitezen ekiditea.
- Europako bisoiaren habitata zaindu, mantendu edo berreskuratzea, “desagertzeko arriskuan” dagoen espeziea baita eta berriki “egoera kritikoan” izendatu baitute.
- 213/2012 Dekretuan xedatutako kalitate akustikoari buruzko xedeen betekizuna bermatzea. Hala badagokio, arau subsidiarioetan antolamendu xehaturik ez duten garapen berriak eremu akustikoetan kokatuko dira, eta, aurreikuspenen arabera, eremu horietan bete beharko dira kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.
- Lurzoru urbanizaezin osoa honako irizpide hauen arabera antolatzea:
 - o 2/2006 Legearen 13. artikuluko irizpideetara egokitzen diren lurzoruak lurzoru higiezin modura sailkatzea.
 - o Plan Orokorrak 2/2006 Legeko 53.4. artikuluan adierazitako zehaztapenak jasoko ditu. Horri dagokionez, lurzoru ez urbanizagarrientzat Lurralde Ordenamenduko Gidalerroetan eta Durangoko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean ezarritako Antolamendurako Kategorien izendapenak eta irizpideak erabiltzen dituen kalifikazioa ezarriko da, eta aukera egongo da azpikategoria gehigarriak txertatzeko, udalerriaren ezaugarrien arabera.
- Udal plangintzak ibilguen ertzetan dauden lurzoru ez urbanizagarriei “Lur Gaineko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina” kategoria ezarriko die, EAEko Erreka eta Ibai Ertzak Antolatzeko Lurraldeko Plan Sektorialek (Kantauri isurialdea) eratorritako eremuekin batera. Lurrazaleko Uren Babeserako Lurzoru Urbanizaezin horiek Sektoreko Lurralde Plan horretako araudiaren F.1 ataleko 1. puntuan zehaztutako zabalera izango dute alde bakoitzean. Gainera, udal-plangintzak Sektoreko Lurralde Plan horretan zehaztutako irizpideak jaso beharko ditu, ibilguaren alde bakoitzeko 100 metroko zabalerako bandari dagokionez.
- Lurzoru urbanizaezinaren lurralde, paisaia eta funtzio egitura gordetzea eta elementu bereziak erabileren eta eraikuntzaren kalifikazio eta arauketa egokiaren bidez babestea.
- Paisaiaren egituraketa eta konektibitate elementuak mantentzea eta habitaten zatiketa kontrolatzea.
- Udalerriko azpiegitura berdea kontuan hartzea, eremu naturalen, erdinaturalen eta beste ingurumen-elementu batzuen sare gisa definitua, landa-inguruneetan eta hiri-inguruneetan dagoena, estrategikoki planifikatua, zerbitzu ekosistemikoen aukera zabala emateko diseinatua eta kudeatua. Azpiegitura grisak helburu bakarra du, berdeak, aldiz, hainbat onura eskaintzen ditu.
- Udalerriko ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa babestea eta bultzatzea.
- Baso autoktonoa eta txanda luzeko landaketak lehenesteko neurriak txertatzea, espezieak eta biodibertsitatea mantentzeko.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Ingurumen-irizpide estrategiko horiek Plan Orokorrak ezarritako helburuak lortzeko alternatiben identifikazioan, deskribapenean eta ebaluazioan txertatuko dira.

6.2.4. Ingurune fisikoaren plangintzaren helburuak betetzeko irizpideak


Ingurune fisikoari dagokionez plangintzak finkatu dituen helburuak betetzeko, aurrerakinaren fase parte-hartzailean landutako irizpide hauek ezarri dira, eta Durangaldeko Eremu Funtzionaleko LPParen xedapen lotesleekin osatu edo kontrastatu dira:

Eremua: Ingurune naturala eta landa-eremua

Xedea:	Hiriko berdeguneen eta ingurune naturalen arteko konektagarritasuna hobetzea.
Irizpideak:	- Durangoko sare-berdea garatzea. - Pasabide ekologikoen sarea bermatzea.
Xedea:	Lurzorua baliabide eskasa denez, ahal den heinean, landa-eremuko lurzoruak edo lurzoru naturalak ez okupatzea.
Irizpideak:	- Planaren aldaketa berririk ez egitea artifizializatu gabeko lurzoruei eragiten dienean, gaur egun artifizialduta dagoen lurzoruarekin edo hiri-lurzoruan dagoeneko onartuta dagoen planeamenduarekin antzemandako eskaerei erantzun ahal zaien bitartean. - Ahal den heinean garatu ez den lurzoru urbanizagarria desklasifikatzea, hautemandako beharrei erantzuteko lurzoruak izan ezik.
Xedea:	Baso-masa publikoen baso-kudeaketa jasangarria.
Irizpideak:	- Tokiko espezie gehiago landatzea. - Udalerriko basogintzaren politika horri balioa ematea eta gizarteratzea. - Baso publikoen kudeaketa jasangarria egitea eta herritarren eskura uztea ahal den heinean. - Kudeaketa pribaturako errentagarritasun ekonomikoa lortzeko moduak aztertzea eta, hala, lurzoruaren abandonua eragozteak.
Xedea:	LPPren zehaztutako lotesleak.
Irizpideak:	- Lurzoruak babesteko kategoriak ezartzea eta ingurunearen gainjarritako baldintzak eta osagarri nabarmenak alboan ezartzea. Behar bezala zehaztutako erabilaren matrizearen arabera arautzea.

Eremua: Kultura eta paisaia-ondarea

Xedea:	Ibilbide turistikoak eta paisaiaren gozamena sustatzea.
Irizpideak:	- Landa-eremuko bide publikoei balioa ematea. - Hiri-ingurunea natura-ingurunearekin lotzen duten bidezidor ibilienetan bidezortasunak finkatzeko aukera aztertzea.
Xedea:	Ibaiaren balioa indartzea, bizi-kalitatea hobetzeko elementu gisa.
Irizpideak:	- Mañaria ibaian jarduketak egitea, zabaltzeko jarduketan ardatz nagusia baita. - Uholdeen arriskua murrizteko ibaietan jarduketak egitea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Xedea: Kultur ondareari balioa ematea.

Irizpideak: - Kultur ondarearen katalogoa berrikustea.

Eremua: Klima-aldaketa eta kutsadura

Xedea: Uholdeen arriskua murriztea.

Irizpideak: - Hiriko lurzorua iragazkortasuna areagotzea, klima-aldaketara egokitzeko irizpideen arabera (sare berde eta urdina).
- Ibaiak eta erriberak berroneratzea.

Xedea: Berdeguneetarako eta elkarren artean lotutako sare berdeetarako irisgarritasuna areagotzea, bero-irlen efektua murriztuz.

Irizpideak: - Durangoko sare berdearen garapena, bai jarduketa berrietan, bai hiri-eremuen birgaitzean.
- Sare berdea da hiriko gainerako ehunduraren euskarri eta egitura (etxebizitzena, ekipamendua...).

Xedea: Berotegi efektuko gas-isuriak murriztea.

Irizpideak: - Eraikinen birgaitzean eskari energetikoa murrizteko araudia aplikatzea.
- Auzoen diseinuan baldintza eta ezaugarri bioklimatikoak txertatzea aztertzea: orientazioak, eraikinek partekatutako berogailuen sistema zentralizatuak, etab.
- Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpena areagotzeko jarduketak.
- Autokontsumo elektriko partekatua lortzeko jarduerak, soberakinak konpentsatuz eta baso-kudeaketa propioko biomasaren bidez beroa sortuz.
- Ibilgailuaren erabilera murrizteko jarduketak:
o Ibilgailuarentzako eremua murrizteko hiria berritzea.
o Auzoak birdiseinatzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuei lehentasuna emateko (superetxadiak).
- Klima-aldaketari egokitzeko jarduketak egitea, berroneratze berde eta urdinaren bitartez, eta hiriko lurzoruan bero-irlak sortzea ekiditea.


6.2.5. Hiri-ingurunearen plangintzaren helburuak betetzeko irizpideak

Hiriko ingurunearen plangintzak finkatu dituen helburuak betetzeko, aurrerakinaren fase parte-hartzailean landutako irizpide hauek ezarri dira, eta Durangaldeko Eremu Funtzionaleko LPParen xedapen lotesleekin osatu edo kontrastatu dira:

Eremua: Bizileku kopurua areagotzea.

Xedea: Etxebizitza irisgarria sustatzea.

Irizpideak: - Etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko jarduketak. Etxebizitzaren euskal legearen tresnen egoera eta ezarpenaren azterketa (etxebizitza hutsen aitorpena, kanona, behartutako alokairua, desjabetzea).



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA


	- Alokairu sozial gehien lortzeko legezko tresnak baliatzea. - Birkalifikazioetan ahalik eta etxebizitza publiko gehien ezartzea.
Xedea:	Etxebizitzen parkea optimizatzea, etxebizitza gehiago izateko.
Irizpideak:	- Merkataritzarako bokaziorik ez duten eremuetan lokala etxebizitzen erabilera berrietarako erabili ahal izateko aukera aztertzea. - Zuzkidura-jarduketak egitea, erabilerak bizitegi-erabilerara aldatzeko eta/edo etxebizitza kopurua handitzeko. - Ekipamenduak edo etxebizitzen erabilerarako aktibo ez dauden beste lurzoru batzuk birkalifikatzea, etxebizitzen eta zerbitzuen arteko oreka baldin badago, betiere.
Xedea:	Beharrezko gutxieneko hazkundea izatea, jarduketan arloarekin bat egiten duten trinkotasuna duten jarduketak egiteko.
Irizpideak:	- Etxebizitzaren beharraren inguruko azterketa egokitua. - Jarduketa-eremu berriei aplikagarria den dentsitatearen inguruko azterketa egokitua, hainbat erabilerarekin (hirugarren sektorea, merkataritza...).
Xedea:	LPPren zehaztutako lotesleak.
Irizpideak:	- LAGen eta LPPen irizpideen arabera kalkulaturako etxebizitza beharren kuantifikazioa. Tarteak 3.068 eta 1.534 etxebizitza artekoak izango litzateke. - Erabilera mistoen eredia sustatzea, lurzoru berrietan, etxebizitzen eremuan eraikitako azaleraren % 10 ekonomia-jardueretarako gordetzeko (industriarako, hirugarren sektorerako edo ekipamendu pribatuetarako), eta horietan beharrezkotzat hartzen diren zuzkidura publikoetarako.

Eremua: Hiri-berroneratzea

Xedea:	Birgaitzeko jarduketak behar dituzten auzoak edo eremuak identifikatzea.
Irizpideak:	- Zaurgarritasun-egoera okerragoa izan dezaketen auzoen azterketa (egoera txarra sozioekonomiari, ekipamenduei, zerbitzuei, eraikinen kalitateari eta hirietako azpiegiturei dagokienez). - Lurzoruaren eta etxebizitzaren legeak ahalbidetzen dituen berroneratzeko eta birgaitzeko tresnak txertatzea.
Xedea:	Eraikinen birgaitzea sustatzea eta eraikita dagoena finkatu eta sustatzeko jarduketak egitea.
Irizpideak:	- Birgaitzeko legezko tresnak ezartzea (EIT, diziplina urbanistikoa, kontserbaziorako legezko betebeharrak, etab.).

Eremua: Mugikortasuna

Xedea:	Mugikortasuna planifikatu eta kudeatzea, alboko udalerriekin lotuta dagoen sarea lortzeko.
Irizpideak:	- Egungo bide-sarea behar bezala finkatzea eta Hegoaldeko bide-eraztunaren itxiera kudeatzea, erdigunea zeharkatu gabe auzoetara sartzea ahalbidetzeko eta zonetan ibilgailuen zirkulazioa murriztea ahalbidetzeko.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Xedea:	Mugikortasun aukera ugariak lotzen dituen eta oinez eta bizikletaz egindako lekualdatzeak txertatzen dituen garraio-sarea lortzea, udalerrri barruan motordun mugikortasuna murrizteko.
Irizpideak:	- Ibilgailuarentzako eremua murrizteko hiria berritzea. - Auzoak birdiseinatzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuei lehentasuna emateko (superetxadiak). - Bizikleten sarearekin edo garraio publikoarekin lotuta dauden aparkalekuetan zuzkidurak sortzea. - Hirigunean kalea eremu kolektiboa eta harremanetarakoa izatea.
Xedea:	Lurzoru urbanizaezinak herritarrei hurbiltzea erabili eta gozatzeko, oinez eta bizikletaz hiri kanpoko eremuetara heltzeko bideak hobetuz, eta udalerriko eta udalerrri kanpoko ekipamenduekin lotuta dagoen oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea hobetuz.
Irizpideak:	- Udalerriko bidegorrien-sarea amaitzea, mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik lotura logikoarekin. - Irisgarritasunerako udal-plana egitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriei dagokienez.
Xedea:	Oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatzea, herritar guztientzako erabilgarria eta irisgarria izateko, pertsonen mugikortasunerako eremu osasungarriak eta berdeak sustatuz.
Irizpideak:	- Sare berdea garatzea eta herritarren segmentu guztientzako erabilerak eskaintzea.
Xedea:	LPPren zehaztaperen lotesleak.
Irizpideak:	- Durango zeharkatu eta lurreta eta Abadiño lotuko dituen garraio publikoaren plataforma bakarra ezartzea. - Tren-autobus intermodalerako eremua kokatzea.

Eremua: Ekipamenduak eta zuzkidura publikoak

Xedea:	Eremu librean eta berdeguneen sarea zabaltzea, herritar guztiei zerbitzu egokia eta jasangarria eskaintzeko, eta egungo ekipamenduen sarea hobetu eta egokitzea.
Irizpideak:	- Eskariari egokitutako ekipamenduak eta konektatuak dituzten eremu inklusiboak sortzea. - Ekipamenduen lurzoruen helburua zehaztea. - Ekipamenduen lurzoru zaharrak berdegune bihurtzeko aukerak aztertzea edo beste erabilera posible batzuk aztertzea, herritarren beharrak kontuan hartuta (bai gazteenak, bai adinekoenak). - Garapen berrietan eremu librean eta berdeguneen hurbiltasuna lortzea. - Orain dauden eremu publikoak birpentsatzea eta berriak planifikatzea, ergonomiaren, irisgarritasunaren eta segurtasunaren gutxieneko irizpide berriekin.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

	- Garapen berrietako ekipamenduen egokitzapena eta irisgarritasuna aztertzea, batez ere osasunekoak, hezkuntzakoak, kirolekoak, kulturakoak eta ongizate sozialekoak.
Xedea:	LPParen arabera zuzkiduren estrategia-ekintza
Irizpideak:	Hezkuntzako ekipamendua. Hezkuntza Sailari galdetuko zaio horren inguruan: - DBHko eskaintza publikoa eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen sarea mantentzea bermatzea. - Dagoen ekipamendua berrerabiliz erregimen bereziko ikaskuntza sustatzea. - 0 eta 3 urte arteko haur hezkuntzako eskaintza publikoa handitzea. Ongizate sozialerako ekipamendua: - Adinekoentzako etxebizitzaren proposamena - Biztanleen segmentu jakin batzuentzako etxebizitza-zentro espezifikoaren proposamena egitea (degaitasuna dutenak, arreta bereziko zentroak, emakumeentzat...). - Elkarleen, hirugarren adinekoen taldeen eta etxeen egungo eskaintzari eustea. Kultur ekipamendua: - Kultur Etxearen proposamena

Eremua: Jarduera ekonomikoa


Xedea:	Eguzkitzan industrigunea garatzea ahalbidetzea.
Irizpideak:	- Eguzkitzan lurzoru industriala garatzeko aukera bideragarriak kudeatzea.
Xedea:	Etxebizitzekin eta hirugarren sektorearekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak txertatzea hiriko lurzoruan.
Irizpideak:	- LPPan horren inguruan ezarrita dagoen irizpidea betetzea.
Xedea:	LPPren zehaztutako lotesleak.
Irizpideak:	- Ekonomia-jarduerarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea, 39,42 eta 19,71 hektarea arteko tartean. - Lurzoruaren kontsumoa mugatze aldera, eraikitako ondarearen eta egun hutsik dauden lurzoruen optimizazioa kontuan izatea.

Eremua: PERI-1 Trenbidea

Xedea:	Herritarrek PERI-1 trenbidearen inguruan hartu duten erabakia aurrera eramatea.
Irizpideak:	- PERI-1 Trenbidearen eremuan eraikigarritasuna murriztea. - Eremu horren eta hiriko beste batzuen garapenerako baldintzak aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin izandako aurreakordioa bideratzeko.

Eremua: Aukera estrategikoak

Xedea:	Eraldatuta dauden lurzoruak berrerabiltzea.
--------	---



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Irizpideak:	- Industriako hondakinen lurzoruak erabiltzea bateragarriak diren jardueretarako. - Plangintzan formula eta jarduketa urbanoak aurreikustea, sare berdea garatzeko helburuak betetzea, ibaien balioa indartzea, ibilgailuentzako eremua murriztea eta hiria berroneratu eta birgaitzea bideragarria izan dadin. - Trenbide zaharra oinezkoentzako eremu eta sare berdearen ardatz bihurtzea.
Xedea:	Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea.
Irizpideak:	- Potentzialki kutsatuta dauden lurzoru publikoen esku-hartzea lehenestea, balizko erabileren arabera, kontuan izanik sare berdearen eta hiri berroneratzearen helburuak betetzeko duen bideragarritasuna eta garrantzia estrategikoa.
Xedea:	Eremuak klima-aldaketara egokitzeko hobekuntza egitea.
Irizpideak:	- uholdeen arriskuak murrizteko ekintzak - Sare-berdearen garapena - Bero-irlaren efektua murrizteko jarduketak
Xedea:	Eskualdeko eta eremu funtzionaleko hiriburua izateko ekipamenduen estrategia egitea, kultur jarduerak, hezitzaileak eta sustapen ekonomikorakoak erakartzeko.
Irizpideak:	- Eskualdeko eredurako LPParen irizpideak txertatzea
Xedea:	Durango merkataritzarako eremu ireki, irisgarri, atsegin eta jasagarria izatea.
Irizpideak:	- Merkataritzako eta ostalaritzako sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatzea. Merkatuaren plaza indartzea.

Eremua: Zeharkako gaiak

Xedea:	Irisingarritasuna. Zerbitzuen eta berdeguneen irisingarritasuna hobetzea
Irizpideak:	- Garapen berriak irisingarritasun hobearen eremuetan sustatu beharko dira. - Irisingarritasunerako udal-plana egitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriekin dagokienez.
Xedea:	Genero-ikuspegia. Plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko lanean zehaztuta diren irizpideak HAPOn sartzea:
Irizpideak:	- Artifizializatuak izan ez diren lurzoruetan etxebizitza berriak garatzea ekiditea, ahal den neurrian, zehazki udalerriaren hegoaldean dauden lurzoru urbanizagarrietan. - Etxebizitzaren hiri-lurzoruan garapen berriak planifikatzeko prozesuetan genero-ikuspegia modu sistematikoan eta zeharka txertatzea. - Egungo hiri-bilbea jostea: - Auzoen arteko lotura, eguneroko ekipamenduak eta merkataritza-gune nagusiak hobetzea. - Jarduera ugari gertu dauden eremu mistoak sustatzea. - Oinezkoen mugikortasun autonomia sustatu eta lehenestea.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

	- Kalea egoteko eta topatzeko toki gisa indartzea. - Kaleak naturalizatu eta parkeen sarea hobetzea.
Xedea:	Lurralde arteko harremana.
Irizpideak:	- Intermodalitatea hobetzea ahalbidetzen duten jarduketak aztertzea.
Xedea:	Osasuna. Airearen kalitatea hobetzea
Irizpideak:	- Airearen kalitatea hobetzeko jarduketak egitea (trafikoa murriztu, landaredia areagotu...).
Xedea:	Osasuna. Herritarrengan zaratak duen eragina murriztea
Irizpideak:	- Plangintzan zarataren inguruko araudia betetzea - Hiriko lurzoruan zarataren eragina murrizteko jarduketak egitea (trafikoa murriztea, landaredia areagotzea...).
Xedea:	Osasuna. Pertsona guztiek eremu berde zabaletarako irisgarritasuna izateko hobekuntzak egitea.
Irizpideak:	- Durangoko sare-berdea garatzea. - Irisgarritasunerako udal-plana egitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriei dagokienez.
Xedea:	Euskara. Plangintzan eragin linguistikoa txertatzeko aukera aztertzea eta balizko aukeretan kontuan hartzea.
Irizpideak:	- Plangintzan eragin linguistikoaren inguruko araudia betetzea

6.2.6. Plana garatu eta kudeatzeko irizpideak

Plana garatu eta kudeatzeko irizpidearen xedea hirigintzako teknikaren eta kudeaketaren estrategia islatzea da, HAPOren helburuak gauzatzeko. Horretarako, jakingarri modura, hauek proposatu dira:

- Gauzatzeko unitate homogeenak, kirurgiakoak, hedapen gutxiak eta kaltetutako gutxi dituztenak mugatzea, derrigorrezko eta doako lagatzearen bitartez ekipamenduak erostea ahalbidetzeko.
- Hornidura edo zuzeneko jarduketa mugatzea, Gauzatzeko Unitateak mugatzeko garrantzia nahikorik ez duten hiri-lurzoruan dauden arloei dagokienez.
- Integratutako jarduketei atxikitzen zaizkien Sistema Orokorreko sarearen zuzkidura publikoak mugatzea, Gauzatzeko Arlo, Sektore edo Unitateen kargura egongo diren doako zuzkidurak lortzeko, 2/2006 Legearen 186. artikularen arabera.
- Gauzatzeko unitateen dentsitatea areagotzea indarrean dagoen plangintzan zehaztutakoei dagokienez, eta, horretarako, bakoitzak duen gehienezko etxebizitza muga ezabatzea eta eraikigarritasuna zehazten duen parametro gisa mugatzea.
- Arlo bakoitzeko etxebizitzaren erregimen bakoitzari bideratutako proportzioa aztertzea, ahal den heinean, babes-motaren bat (BOE eta tasatuak) duten etxebizitzaren ehunekoari eutsi edo areagotzeko jarduketa guztietan.
- Jarduketa bakoitzaren bideragarritasuna aztertzea, bai eta diseinatzen den HAPO osorako tokiko ogasunerako jasagarritasun ekonomikoa ere.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

6.2.7. Etxebizitza behar orokorren kuantifikazioa

Plangintzaren etxebizitzaren kopuruaren kuantifikazioak antolamendu xehatuko xedapena (2/2006 Legea, 56.1g art) osatzen duen arren eta antolamendu xehatutako dokumentuek ezarri edo moldatu dezaketen arren, kontuan izan behar dira lurralde antolamendurako legediak dituen mugak. Halaber, HAPOren helburuen eta irizpideen ataletan adierazi den moduan, behar bezala justifikatu behar da etxebizitzaren balizko garapen berrien eskaria eta dimentsionamendua, eta zorrotz aztertu plangintzak erantzun behar dituen beharrak, aurreikusitako garapenen gehiegizko dimentsionamendua eragotziz. Nolanahi ere, Plan Orokorrak udalerririk garapen urbanistiko berrientzat duen harreraren azterketa jaso behar du.

Horretarako, 2/2006 Legearen 52. artikulua xedatzen du hiriko antolamenduaren eta plangintzaren arteko harremanak eta lurraldearen antolamendurako tresnak horien legediak arautzen dituela. Lurraldea antolatzekeko tresnak indarrean jartzeak berekin dakar haien zehaztapenak hirigintza-antolamendu eta -plangintzaren xedapenen gainetik gailentzea, baldin eta horiek kontraesankorrak edo bateraezinak badira, zuzeneko aplikazio eta eraginkortasuneko arau lotesleak direnean, eta lurralde-antolamenduko legeriaren arabera hala dagokionean.

Uztailaren 30eko 128/2019 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartzen dituen, indarrean dago eta laugarren xedapen iragankorrean honako hau dio: *“Lurralde Plan Partzialak Gidalerro hauek aplikatzearen ondoriozko bizitegi-kuantifikaziora egokitu arte, hirigintza-plangintzak indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialetik eta Dekretu honen aplikaziotik ondorioztatzen diren gehieneko bi balioetatik txikiena erabiliko du gehieneko bizitegi-ahalmen gisa”*.

6.2.7.1. Metabolismo demografikoa

Metabolismo demografikoari eta Durangoko etxebizitza-parkeari buruzko diagnostikoan adierazitakoaren arabera (ikusi **erantsitako dokumentua**), Durangoko biztanleria hazten jarraitzea aurreikusten da. Azken hogeitazazpi urteetan aztertutako parametroen arabera, biztanleria % 21,7 igo da eta datozen 15 urteetan % 8,5 inguru igo da. Durangok 2020an 30.118 biztanle zituen eta, aurreikuspenaren arabera, 2036an 32.300 biztanle inguru izango lituzke. Hazkundearen faktore nagusia migrazio saldoa da. Hazkunde hori onargarria da egungo udal-ekipamenduei, lurzorua etxebizitza berriak hartzeko duen gaitasunari eta biztanleriaren hazkundearekin lotuta dauden ekonomia-jarduera berriei dagokienez. Halaber, mugikortasun jasangarrirako plana eta zirkulaziorako eratzuna gauzatu ostean, sor daitezkeen trafiko-fluxu berrientzako bideen gaitasuna nahikoa izango da.


Familien batez besteko tamaina 2,9 pertsonatik 2,5era jaitsi da 2001etik 2020ra. Tamaina 2,4ra jaitsiko da gutxienez 2036rako. Faktore horren eta biztanleriaren hazkundearen ondorioz, 1.464 elkarbizitzarako unitate gehiago egon daitezke gutxienez.

2020an 1.405 etxebizitza huts zeuden, hau da, etxebizitzaren parkearen % 10,2 (13.291 2020an); beraz, udalak etorkizunean hutsik gera daitezkeen etxebizitzaren erabilera sustatzeko planak egin behar ditu. Etxebizitza hutsak gehiago dira etxebizitzaren parke zaharragoa duten auzoetan.

6.2.7.2. Kuantifikazioa eta etxebizitzaren gaitasuna LPParen arabera

Durangoko LPParen formulari biztanleriaren eta udalerriko familiaren batezbesteko tamainaren aurreko datuak aplikatuta, bizilekuen kuantifikazioa birkalkulatu da (ikusi **erantsitako dokumentua**), eta hortik bizilekuen eskaintzaren kuantifikazio hau aterata da Durangorako:

Egoitza eskaintzaren kuantifikazioa



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Aldia	Kanpoko berrorrea (A)	Barruko berrorrea (B)	Behar endogenoak (C)	Bigarren etxebizitza (D)	KUANTIFIKAZIOA	
					Maximoa	Minimoa
8 urte	0	0	1.279	0	3.837	1.918
16 urte	0	0	2.862	0	5.724	3.577

Durangorako gomendatzen den harrotze-koefizientea 1,5ekoa da 16 urtera, eta gutxieneko gomendagarria 4.293 etxebizitzakoa da 16 urtera (2036).

6.2.7.3. Kuantifikazioa eta etxebizitzaren gaitasuna LAGen arabera

Aipatu dugun moduan, **bizilekuen gehieneko gaitasuna LPptik eta LAGetatik ateratzen diren gehienezko bi balioetatik txikiena izan behar da.**

Horregatik, gehienezko bizilekuen kuantifikazioa birkalkulatuko da LAGek ezarritako irizpide berrien arabera (ikusi **erantsitako dokumentua**), eta alderaketarako zifrarik txikiena erabiliko da.

LAGen kalkuluen arabera, Durangok 2035era arte 3.100 etxebizitza-bizilekuren beharra eta 6.820 etxebizitzako gehienezko gaitasuna izango ditu. Hala eta guztiz ere, kopuruak ezingo du egungo etxebizitzaren parkearen % 50 gainditu, hau da, HAPOk ezingo luke inola ere 6.660 etxebizitza baino gehiagoko gaitasuna planteatu.

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartzen dituen, indarrean dago eta laugarren xedapen iragankorrean dio: "Lurralde Plan Partzialak Gidalerro hauek aplikatzearen ondoriozko bizitegi-kuantifikaziora egokitu arte, hirigintza-plangintzak indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialetik eta Dekretu honen aplikaziotik ondorioztatzen diren gehieneko bi balioetatik txikiena erabiliko du gehieneko bizitegi-ahalmen gisa".


6.2.7.4. Etxebizitzaren kuantifikazioari buruzko ondorioak

HAPOn aurreikusi beharreko etxebizitzaren gehienezko gaitasunari dagokionez, etxebizitzaren kopuru gomendagarria 4.293 da.

Metabolismo demografikoaren azterketari eta egindako prospektibari dagokionez, Durangok 1.464 elkarbizitza-unitate gehiago behar ditu 2036rako. Etxebizitza hutsen mugimendurako politika aktiboarekin etxebizitza hutsak % 25 murriztea aurreikusten da; beraz, eraiki beharreko etxebizitzak % 8,3 gehiago izango dira gutxienez. Hau da, 1.585 etxebizitza. Horien gainean, hiri-garapeneko prozesuek izan dezaketen zurruntasuna gorabehera, behar diren etxebizitzak eraiki ahal izateko adinako lurzoru-ahalmen zabalak aurreikusi behar dira. LPPrako gomendatutako eta erabilitako koefizienteak aplikatuz gero, ez lirateke 2.377 etxebizitza baino gutxiago aurreikusi beharko 2036rako.

Hau da, onartzen den HAPOak datu horiek xehetasun handiagoarekin berraztertutako beharra alde batera utzi gabe, proposamena da HAPOn aukerak 2036rako gutxienez 2.377 etxebizitza eta gehienez 4.293 txertatzeko jarduketak diseinatzea.

Indarrean dauden UPASen eta haien moldaketen arabera, 3.981 etxebizitza planifikatzen dituzte eta horietatik etxebizitzaren eskaintza bat dago oraindik libre, 2.404 etxebizitzakoa, dokumentu honen egun berean eguneratua (ikusi 0 aukeraren taula). Eta, garapen-arlo guztiak garatuko ez direla aurreikusten



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

den arren, kuantifikazio horri esker ikus daiteke HAPO berriak hazkunde nahiko neurrizkoa izango duela egungo UPASetan libre dauden etxebizitzaren parkeari dagokionez.

6.2.8. Ekonomia-jardueretarako lurzoruen beharrak

Durungaldeako Eremu Funtzionalaren LPPak, ekonomia-jardueretara bideratutako lurzoruen eskari orokorretik abiatuta, udalerriaren arabera banatzen ditu beharrak. Durangori dagokionez, ekonomia-jardueretara bideratutako lurzoruen eskariaren kuantifikazioa 26,28 hektareakoa da industriaren erabileretarako hemendik 16 urtera (13,14 hektareakoa 8 urterako).

Amaierako kopuruaren tarteak nahikoa malgutasun ematen dio udalerriri. Hemendik 16 urtera, eskariaren koefizientea 2 eta 1,25 balio minimo eta maximoen artean egongo litzateke, hurrenez hurren. Hemendik 8 urterako plangintzaren aldirako, eskariaren koefizientea 3 eta 1,5 balio minimo eta maximoen artean egongo litzateke, hurrenez hurren.

Hau da, Durangorako tarteak izango da:

Durangoko industriako ekonomia-jardueretarako lurzoruaren (hektareak) eskaintzaren esparrua		
ALDIK	GEHIENGOAK	GUTXIENKOAK
8 urte	39,42	19,71
16 urte	52,56	32,85


HAPOren 15 urteko iraupen-aurreikuspenetarako, interpolazio bat egiten da industria-erabileretarako lurzoruaren eskarian, $13,14 \times 15/8 = 24,63$ ha.

Bestalde, adierazi behar da harrotze-koefizientea jarduera ekonomikoetarako Ereduaren arabera aurreikusitako lurzoruaren zenbatekoari aplikatzen zaiola, horren ondorioz eskaintzan bihurtzeko. LPPak berak adierazten duen bezala, helburua ez da proposatutako azalera handitzea, baizik eta behar beste lasaidutako lurzoru-aurreikuspenak egitea, eta horrela, hiri-garapeneko prozesuek izan dezaketen zurruntasuna konpondu ahal izateko.

Azpimarratzekoa da hiri-garapeneko prozesuen zurruntasuna aurreikuspenen gehikuntzarako arrazoia izan daitekeela eremu oso desberdinak planteatzen direnean (bizitegi-lurzoruekin gertatzen den bezala), baina zurruntasun-arrazoi horiek ez dira ematen eremuak oso gutxi direnean eta udalerriko eremu berean daudenean. Beraz, Durangoren kasuan, eremu espazial bakar batean industria-garapenaren hazkunde berriak aurreikus daitezkeenean, lurralde-ereduaren barruan, 1 koefizientea baliozkotzat jo daiteke 16 urterako lurzoru-eskariari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, onartzen den **HAPOk datu horiek xehetasun handiagoz berraztertu behar izatea alde batera utzi gabe, proposatzen da HAPOren alternatibek 2036. Urtera begira gutxienez 24,63 Ha eta gehienez $24,63 \times 2 = 49,26$ Ha sartzeko eremuak diseinatzea.**

Eguzkitza II eta Eguzkitza III industriarako lurzoru urbanizagarriek 33,57 eta 13,07 hektarea dituzte hurrenez hurren. Hau da, indarrean dauden UPASen arabera, industriarako lurzoruek 46,64 hektarea dituzte eta ez dituzte garatu birkalifikatuak izan zirenetik. Beraz, ez dago ekonomia-jardueretarako lurzoru handiagoaren eskaintza sortzeko beharrik. Horretarako, industria-lurzoruaren eskaintzan birsortu beharreko industria-lurzoruak sartu dira ere.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Are gehiago, lurzoruaren kontsumoa mugatzeko helburuarekin, LPPak proposatzen du eraikitako parkearen potentziala kontuan izatea eraikitako ondarea eta indarrean dagoen plangintza optimizatzeko (sailekatutako lurzoruak, baina oraindik libre daudenak), lurzoru berrien okupazioaren lehentasunezko esku-hartze eredu gisa. Horregatik, **konponbide orokorrek gai hori baloratu behar dute, eta lurzorua desklasifikatzeko aukerak ere planteatu ditzake.**

Bestalde, LPPak hiriko eremu eta arloetan desio ez den espezializazio funtzionala ekiditea proposatzen du, baita bizilekuen erabilerekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerako erabilerak txertatzea ere. Hala, bizitegi-erabilera orokorrerako proposatzen diren lurzoru berrietan, eta 30 etxebizitza hektarea bakoitzeko dutenetan, bere birdentsifikazioa baloratuko da, jarduera ekonomiko bateragarriak kokatzeko eremuaren hirigintza-azaleraren % 10 erreserbatu ahal izateko; jarduera horien artean, industria-erabilera bateragarriaz gain, beste batzuk ere egon daitezke, hala nola hirugarren sektoreko merkataritza-erabilerarena, bulegoena eta bestelako zuzkidura-zerbitzu pribatuena, lagatako lurzoruak edozein direla ere.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

7. HAPO BERRIAREN IRTENBIDE OROKORRAK. PROPOSATUTAKO LURRALDEAREN ETA HIRIAREN EREDUA

7.1. Irtenbide orokorren sarrera

Aurreko atalean planteatutako helburuak eta irizpideak udalerriaren HAPO idazteko lurralde- eta hiri-ereduko proposamenetan gauzatzen dira.

Proposamen zehatz horiek 1/10.000 eskalan egiten dira udalerria bere osotasunean adierazten badute, 1/5.000 eskalan hiriguneko eremuak direnean eta 1/2.000 eskalan eskala handiagoko hiriguneko eremuentzat. Jarraian azalduko ditugu, egokitutako lurraldearen antolamendu-ereduaren aukerekin eta hiri-plangintzarako aukerekin batera.

Lurraldearen antolamendu-eredurako hauek definitu dira:

- 1) lurraldea egituratzen duten sistema nagusiak.
- 2) Babestutako eremuen, babes berezikoaren edo trantsizioen mugatzea, ingurune fisikoaren edo babestu nahi den balio zehatzaren kontserbazioa bermatzeko.
- 3) Nekazaritzako, basozaintzako, abeltzaintzako eta, oro har, baliabide naturalen erabilera arrazionalerako eremuen muga.
- 4) Ingurune fisikoari gainjarritako baldintzatzaileak.

Hiri-plangintzaren eredurako definitu dira:

- 1) Hiri-plangintzarako gainjarritako eta egituratutako baldintzatzaileak.
- 2) Hirigintzako estandarren, ekipamenduen eta ezarpenei eta aurreko erabilerei laguntzeko zuzkiduren definizioa, hala nola: eremu libreak, zuzkidura-bizitokiak, irakaskuntzarako ekipamenduak, kirolekoak, soziokulturalak, administrazioak, osasunekoak, etab.
- 3) Hirigintzako erabileretarako arloak mugatzeko proposamenen aukerak (lurzoruak sailkatzeko aukerak), bizilekuak eta ekonomia-jarduerak zeinetan lehenetsiko liratekeen aipatuz, bai eta haien definizioa eta balorazioa ere.


7.2. Lurralde antolamenduaren eredua

Lurraldearen antolamenduaren deskribapena atal hauetan egituratu dugu:

7.2.1. Egiturazko sistema orokorrak

a. Komunikazioak

Ibilgailuentzako bideei dagokienez, alde batetik, Bizkaiko Errepideen LAPeko foru-errepideak ditugu, eta, bestetik, udalarenak diren eta ibilgailuentzat zein oinezkoentzat diren hiri-bide garrantzitsuek osatzen duten Komunikazioen Sistema Orokorra. Horiek "OE-2 Lurzoruaren Kalifikazio orokorra" planoetan ageri dira.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Durangoko udal-mugartean lurralde-eskasia dagoenez, ezinezkoa da egitura-ikuspegitik aukera handiak aurreikustea; izan ere, oinarritzko egitura zirriborratuta baino ez dago aurreko plangintzatik, eta amaitu besterik ez da egin.

Alde horretatik, eraztun zentrokideen egitura bideen ibilgua osatzen duten barneko ardatzekin osatzen da. Horrela, zirkulazioa hierarkizatu eta orientatu egiten da jatorriaren eta helmugaren arabera, eta kalea erabiltzen da tarteko eraztunarekiko hurbilen dagoen elkarguneraino. Eratzun horretatik kanpoko ingurabidera irteten da, BI-634 errepideak iparraldetik, BI-623 hegomendebaldeko saihesbideak eta Tabira eta Montorretako biribilguneen arteko loturak osatzen dute Hegoalde Etorbidetik, eta azken biribilgune hori BI-632 errepidean lotzen da, berriz ere Abadiñoko BI-634 udal-mugartean.

Aipatutako errepideez gain, udalerriko Komunikazioen Sistema Orokorra osatzen dute udalerriko landabideek.

Komunikazioen sistema orokorren barruan ere trenbidea sartzen da, eta bi elementu daude:

- ETS. Bilbo-Donostia.
- ADIF. Abiadura Handiko Trena (AHT).

b. Espazio libreak

Indarrean dagoen plangintzak eremu libreen sistema orokor bat mugatzen du, bai hiriko lurzoruan, bai lurzoru urbanizaezinean. "OE-2 Lurzoruaren kalifikazio orokorra" planoetan daude jasota egungo UPASen eremu libreen sistema orokorrak. Gehienak lurzoru urbanizaezinean daude eta oso zati txikia dago hiri-lurzoruaren barruan. Hiriko lurzoruetan, 44.726 m²ko eremu libreen sistema orokorrak baino ez daude, eta erabat zatitua dagoen tokiko sistemen gainazal zabala dago, 201.224 m²-koa guztira.

Horretarako, proposatutako eredu berriak azpiegitura berde egituratzailea planteatzen du eta lurzoruko sistema orokorrak biltzeaz gain, hiriko sare berdeari jarraikortasuneko egitura eta koherentzia eman diezaieketen berdegune guztiak biltzen ditu, trenbidea ezabatzearekin sortzen den ardatz berriaren gainean.

Trenbide zaharra azpiegitura berdearen ardatz gisa, ardatz zibiko gisa eta harremanetarako gisa erabiltzeak, gainera, iragazkortasuna eta ipar eta hegoaldeko hemisferioen konektagarritasuna handitzea dakar, trenbidearen barrera zaharra gaituz.


Lurzoru urbanizaezinean eremu libreen sistema orokorrak osatzen dituzten basoen parkeak bere horretan mantentzen dira eta 440.624 m² inguru osatzen dituzte.

c. Ekipamenduak

Udalerriak ekipamenduen sistema orokorren sarea osatzen duten hainbat sare eta ekipamendu pribatu ditu. Haien harremana diagnostikoaren dokumentuari dagokion atalean atxikitzen da eta "OE-2 Lurzoruaren Kalifikazio Orokorra" planoetan islatzen da.

7.2.2. Babestutako arloak

HAPOk lurzoru urbanizaezinetako eremu horietan esku hartzeko baldintzak, zaintza eta babesneurriak ezarri beharko ditu. Durango udalerrian ingurumeneko babes berezia duten baliabide eta eremu hauek daude, eta babestu egin behar dira:



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

- Urkiolako Kontserbazio Eremu Berezia, ES2130009 kodearekin katalogatua.
- Natura gune garrantzitsuak: Urkiolako Natur Parkea.
- EAEko pasabide ekologikoak
- Hegazti-fauna babesteko eremuak
- Komunitateko interesa duten habitatak eta komunitateko interesa duten lehentasuneko habitatak
- Landaredi autoktonoaren guneak eta heskaiak.
- Domeinu publikoa duten mendiak eta udalerriko azpiegitura berdeak;
- Domeinu publiko hidraulikoari, errekei eta lur azpiko urei lotutako eremuak.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan zehaztutako balio estrategiko handiko lurzorua
- Euskal Kultur Ondarea osatzen duten ondasunak eta presuntzio arkeologikoaren barruan daudenak.

Babes bereziko arloak lurraldearen antolamendurako eskumena duten tresna desberdinen bitartez lortzen dira, batez ere Hezeguneen eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialen bitartez.

LAGek markatutako jarraibideei jarraituz, Babes Bereziako kategorian sartuko dira Tokiko landarediaren eremuak eta Durangoko Komunitateko interesa duten habitatak.

Halaber, Mendien Foru Arauaren arabera, erabilera publikorako mendiak eta babestutakoak Babes Bereziako Eremu Ez Urbanizagarritzat hartuko dira HAPON. Kalifikazio horren aldaketa orok Nekazaritza Sailaren onespena beharko du.

Babes-arloen kategorian sartzen da Gainazaleko Uren Babesa eta uren ibilguak, errekek eta bilketak barne-hartzen ditu, bai eta babeserako eremua ere.

Durangoren kasuan, hainbat mailako uren ibilguak hauteman dira eta Gainazaleko Urak Babesteko eremuak mugatzeko erabili diren babes-zerrendak uren ibilguaren arabera zehaztu dira. Ondorioz, lurzoru urbanizaezinaren PASen kategorian zerrenda hauek zehaztu dira:

- I. maila. Mañaria ibaia: 30 m. Ondo kontserbatutako landarediak mugatzen dituen zatietan, gutxienez 10 metroko tartea errespetatu beharko da erriberako landarediaren borlaren kanpoko ertzari dagokionez, eraikuntzetarako, urbanizazioetarako, lurra mugitzeko, etab. Salbuespenak obra publikoak eta ondare kulturala babesteko jarduketak izango dira.

- 0. maila. Santa Luzia erreka, Berna erreka, Larrinagatxu: 15 m

- 00 Maila, gainerako errekek (Uren legea): 5 m


Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategoriaren barruan sartuko da baita ere Balio Estrategiko Handikoa deritzona. Katgoria hau Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa kontuan hartuz zehaztu da.

Azkenik, lurzoru urbanizaezinaren beste katgoria batzuk sartuko dira eta haiek babesteko baldintzak ez dira babes bereziko eremuenak bezain zorrotzak edo mugatzaileak:

- Trantsiziorako Landa Paisaia (jatorria Nekazaritza eta Basozaintzako LPS)

- Basozaintza (jatorria Nekazaritza eta Basozaintzako LPS)

- Ingurumeneko hobekuntza (Nekazaritza eta Basozaintzako LPS eta lurzoru urbanizaezineko potentzialki kutsatutako lurzorua).



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

7.2.3. Ingurune fisikoari gainjarritako baldintzatzaileak

HAPOK gainjarritako hainbat baldintzatzaile izan beharko ditu kontuan ingurune fisikoan; horien artean daude hauek:

a. Kutsadura akustikoa.

Durango kutsadura akustikoaren hainbat foku daude, hala nola Foru Errepideak, barneko zirkulaziorako eraztuna eta industria-jarduerak. Plangintzak kontuan izan beharko ditu komunikaziorako azpiegitura horiek eragiten dituzten zordun akustikoak garapen berrientzat eta garatutako arloetan egiten diren berrikuntzentzat.

b. Urak hartzeko arriskua

Gainjarritako baldintzatzaileen planoan, uholdeak izateko arriskua duten lurzoruetako eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborek kaltetutako lurzoruen askotariko lerroak jasotzen dira. Arlo horietan domeinu publiko hidraulikorako araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

c. Potentzialki kutsatutako lurzoruek

Potentzialki kutsatutako lurzoruen inbentarioko elementuak jaso dira eta inbentario hori berrikusten ari dira. Zehazki, Durango hainbat elementuren inbentarioa egin da. Elementu horiek planoetan ere jasotzen dira.

d. Ondarearen elementuak

Babes arkeologikorako lurzoruez gain, kontuan hartu dira Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak adierazitako elementuak, baita egungo UPASetan ageri diren kontserbatu beharreko ondasun eta elementuen zerrendak ere. Horiek "PA 05 Kultur Ondarea" planoan jaso dira. Informazio guztia **kultur ondarearen inbentarioaren eranskinean** dago jasota.

e. Higadura jasan dezaketen eremuak

Higadurak jasateko arriskua duten lurzoruek dira, eta egoera hori kontuan hartu beharko litzateke lurzoru horietan baimendutako erabilerak ezartzerakoan. Durango ez da halakorik hauteman.

f. Akuiferoen kutsadurarekiko eremu kalteberak


Baldintzatzaile horrek isuriek kutsatzeko arrisku potentziala erakusten du. Akuiferoaren gaitasun erreproduktiboa bera eta substratuaren iragazkortasun fisikoa ere neurtzen ditu.

g. Interes Bereziko Eremuak eta bisoi europarraren hobetu beharreko tartearak

Interes Bereziko Eremuak (Babes Bereziko kategoriaren barruan sartu dira) eta bisoi europarrarentzat hobetu beharreko eremuak hauteman dira. Ibaizabal ibaiaren ur-ibilgu jakin batzuetara mugatzen dira.

h. Landaredi exotiko inbaditzaileak hartutako eremuak

Eremu horiek identifikatu egin behar dira jarduketak proposatzeko.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

i. Udalerriko ingurumen- eta paisaia-unitateak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren lurzoru-kategoriak

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren ingurumeneko kategoria eta unitateek erabileren mugak ezartzen dituzte eta HAPOk bete egin beharko ditu. Gauza bera gertatzen da paisaia-unitateekin, kontuan hartu beharko baitira.

7.3. Hiri-plangintzaren eredua

Proposatzen den hiri-plangintzaren eredua definitu eta zehazteko, atal hauek bereizi ditugu:

7.3.1. Hiri-lurren gaineko gainjarritako baldintzatzaileak eta egituratzaileak.

HAPOrako proposatutako helburu eta irizpideen arabera, jarraian adieraziko ditugu hiri-plangintzan kontuan hartu behar diren baldintzatzaile nagusiak.

a. Bide-azpiegiturak

Lurralde-ereduan definitutako sistema egituratzaileari barne-bideen sistema bat gainjartzen zaio, udalerrri barruko ibilgailuen zirkulazioa eremu jakin batzuetara mugatzen duena, oinezkoentzako eta bizikletentzako espazio zabalak (etxadiak) inguratzen dituzten zirkulazio-eratzun gisa.

b. Azpiegitura berde egituratzailea

Indarrean dagoen plangintzak eremu libreen sistema orokor bat mugatzen du, bai hiriko lurzoruan, bai lurzoru urbanizaezinean. "OE-2 Lurzoruaren kalifikazio orokorra" planoetan daude jasota egungo UPASen eremu libreen sistema orokorrak. Gehienak lurzoru urbanizaezinean daude eta oso zati txikia dago hiri-lurzoruaren barruan. Hiriko lurzoruetan, 44.726 m²ko eremu libreen sistema orokorrak baino ez daude, eta erabat zatitua dagoen tokiko sistemen gainazal zabala dago, 201.224 m²-koa guztira.

Horretarako, proposatutako eredu berriak azpiegitura berde egituratzailea planteatzen du eta lurzoruko sistema orokorrak biltzeaz gain, hiriko sare berdeari jarraikortasuneko egitura eta koherentzia eman diezaieketen berdegune guztiak biltzen ditu, trenbidea ezabatzearekin sortzen den ardatz berriaren gainean.


Trenbide zaharra azpiegitura berdearen ardatz gisa, ardatz zibiko gisa eta harremanetarako gisa erabiltzeak, gainera, iragazkortasuna eta ipar eta hegoaldeko hemisferioen konektagarritasuna handitzea dakar, trenbidearen barrera zaharra gaindituz.

Durangoko sare berdean oinarritutako azpiegitura berde egituratzailearen proposamena jaso da. Azpiegitura egituratzaile horrek indarrean dauden USAPen mugak gainditzen ditu eta **273.082 m² izango ditu hiri-eremuan**.

c. Merkataritzarako ardatzak

Udalerriko merkataritza-ardatz nagusiak zehazten dira, eta jarduera handieneko ardatzetan beheko solairuetako bizitegi-erabilera mugatu beharko litzateke, ardatz horietako jarduera ekonomikoak sustatzeko.

d. Kutsadura akustikoa.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Durangon kutsadura akustikoaren hainbat foku daude, hala nola Foru Errepideak, barneko zirkulaziorako eraztuna eta industria-jarduerak. Plangintzak kontuan izan beharko ditu komunikaziorako azpiegitura horiek eragiten dituzten zordun akustikoak garapen berrientzat eta garatutako arloetan egiten diren berrikuntzentzat.

e. Uholdeen arriskua eta arrisku hori murrizteko ibaietan jarduketak egitea.

Gainjarritako baldintzatzaileen planoan, uholdeak izateko arriskua duten lurzoruetako eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborek kaltetutako lurzoruen askotariko lerroak jasotzen dira. Arlo horietan domeinu publiko hidraulikorako araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Hiri-eremuetako uholde-arriskua murrizteko ibaietan egitea aurreikusten diren jarduketa nagusiak adierazten dira.

f. Potentzialki kutsatutako lurzoruek

Potentzialki kutsatutako lurzoruen inbentarioko elementuak jaso dira eta inbentario hori berrikusten ari dira. Zehazki, Durangon hainbat elementuren inbentarioa egin da. Elementu horiek planoetan ere jasotzen dira.

g. Ondarearen elementuak

Babes arkeologikorako lurzoruez gain, kontuan hartu dira Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak adierazitako elementuak, baita egungo UPASetan ageri diren kontserbatu beharreko ondasun eta elementuen zerrendak ere. Horiek "PA 05 Kultur Ondarea" planoan jaso dira. Informazio guztia **kultur ondarearen inbentarioaren eranskinean** dago jasota.


7.3.2. Ekipamenduak, zuzkidurak eta hirigintzako estandarrak.

Udalerriak ekipamenduen sistema orokorren sarea osatzen duten hainbat sare eta ekipamendu pribatu ditu. Haien harremana diagnostikoaren dokumentuari dagokion atalean atxikitzen da eta "OE-2 Lurzoruen Kalifikazio Orokorra" planoetan islatzen da.

Planteatu daitezkeen hobekuntzak alde batera utzi gabe, sistema orokor publikoen sarea nahikoa izango litzateke planteatu den bizilekuen hazkundearen tartearentzat.

Zuzkiduren hirigintzako estandarrei, babes publikoko etxebizitzetako zuzkidura-bizitokiei dagokienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak honako hau ezartzen du HAPOrentzat:

Zuzkiduren estandarra	Xedea
Biztanleko 5 m ² -ko lurzoru edo etxebizitzaren erabilerrako 25 m ² -koa.	Eremu libreak eta hiriko parkeak, bi kasuetan, jabetza publikoa dute. Hainbat tokiren erabilerrak ezar daitezke, hala nola lorategidun eremuak; haur-jolasenak; aire libreko kirolenak; berdeguneak, esaterako baratza kolektiboak, haztegiak, parke linealak eta erabilera eta/edo zerbitzu publikorako beste eremu batzuk. Proposatutako ereduak aurreikusitako biztanleriaren kopuruarentzako beharrezko azpiegitura berde egituratzailea zehazten du.



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA


20.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietarako 1,5 eta 2,5 m ² artean.	Zuzkidura-bizitokiak bizitoki erabilerako eraikitako 100 m² gehiagoko edo, zehaztu ezean, plangintzan aurreikusitako etxebizitza bakoitzarentzat. Bizitoki horien kokalekua xehatutako hiri-plangintzak zehaztuko du. Ereduak proposatzen du HAPOk hiriko lurren antolamendu xehatua ezartzea eta zuzkidura-bizitokiaren kokapena zehaztea, aukeretan planteatzen diren bizitokiaren hazkunderako nahikoa izateko.
---	---

Udal-administrazioek planteamendu orokorraren bitartez aurreikusi behar dute euskal eskola publikoaren **eskolen ekipamendu publikorako** beharrezko lurzorua gordetzea, bai haur eta lehen hezkuntzarako, bai derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergorako, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailaren eskolen maparen eta planen arabera. **Eskola- edo hezkuntza-erreserba horren beharrak antolatzen dituen lurralde-plan sektorialik ez badago, 4.500 m² -ko lur zati bat kalkulatu behar da, haur eta lehen hezkuntzarako, eta azalera bereko beste lur zati bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako.** Eskola-bilgunea hartuko da erreferentziatzat. Durangok horrelako irakaskuntza-moteterako kalifikatuta dauden lurzorua baditu dagoeneko, eta HAPO indarrean dagoen bitartean herritarrei zerbitzua eskaintzeko nahikoak direla uste da.

Babes publikoko etxebizitzaren estandarrak finkatu gabeko hiri-lurzoruko eremuentzat, nagusiki bizitegi-erabilerako jarduketaren integratuen bidez egikaritzea aurreikusten direnak	Plan orokorrekin eta, hala badagokio, bereziki babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatu behar dituzte eremu bakoitzean ezarritako bizitegi-erabilerako hirigintza-erabileraren gehikuntzaren % 40 (gutxienez) gauzatzeko behar diren lursailak (gutxienez % 20 erregimen orokorreko eta bereziko BOEak eraikitzeko, eta gainerakoa erregimen tasatuko BOEak eraikitzeko).
Argitaratutako babes publikoko etxebizitzaren estandarrak, nagusiki bizitegi-erabilerarako lurzoru urbanizagarrien sektoreetarako.	Plan orokorrekin, sektoreetako planekin eta, hala badagokio, plan partzialekin babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatu behar dituzte arlo bakoitzean ezarritako bizitegi-erabilerako hirigintza-erabileraren gehikuntzaren % 75 (gutxienez) gauzatzeko behar diren lursailak (gutxienez % 55 erregimen orokorreko eta erregimen bereziko BOEak eraikitzeko, eta gainerakoa erregimen tasatuko BOEak eraikitzeko).

Aurreko estandarrak modu indibidualean bete behar dira, plangintza orokorra berrikusterakoan legean finkatutako estandarrak beste modu batera betetzeko xedapenak ezarri ezean, bai hiriko lur finkatu eta urbanizagarrietan, bai bi lurzoru-moten edo sektore, arlo edo gauzatze-unitate desberdinen artean.

HAPO honetan hiriko lur guztientzako eta lurzoru urbanizagarriaren sektore bakoitzarentzako aipatutako estandarrak betetzea proposatzen da. Hala, gauzatzen ari diren hiriko lurzoru horien kudeaketa erraztu egiten da, bai eta udalerrirako arlo estrategikoetako lurzoruena ere (BEPB Trenbidea).



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Bizitokiak eta ekonomia-jarduerak kuantifikatzeko tauletan ikus daiteke aurreko paragrafoan aipatutakoa.

Lortzeke dauden zuzkidurak eta zuzkidura-jarduerai edo integratutako jarduera-arloei atxiki dakizkiekeenak hauek dira:

- Tabiragunea kiroleko sistema orokorrean lortzeke geratzen diren lursailak.
- Udalerrriaren mugak berregokitu ostean Aliendalde eremuan, ibaiaren alboan, sartu diren lurzorua.
- Mañaria ibaiaren ertzeko jarduketak.
- Tabirako foru-errepidearen biribilgunearen alboan dauden aisialdirako lurzorua.
- Trenbide zaharreko lurzorua (Eusko Jaurlaritzarekin egindako aurreakordioa).

7.3.3. Erabilera urbanoetarako arloak mugatzeko proposamenen aukerak (sailkapen eta kalifikazio orokorrerako aukerak).

Hirigintzako erabileretarako arloak mugatzeko proposamenen aukeren deskribapena da (lurzorua sailkatzeko aukerak), bizilekuak eta ekonomia-jarduerak zeinetan lehenetsiko liratekeen aipatuz.

Egungo hiri-kokalekuak (bizitegi-erabilerak, hirugarren sektoreko erabilerak, jarduera ekonomikoak) eta helburu horietarako proposa daitezkeen lurzoru sailkatuen handitzeak edo murrizketak biltzen dituzte aukerak.

Hiri-ereduaren plangintzarako aztertu diren aukerak balizko garapenak eta bizitokien eta ekonomia-jardueren jarduketak uztartzen dituzte, udalerrriaren garapen urbanoaren eredua baldintzatzen duten oinarritzko elementu horien gainean. Oinarritzko elementu horien artean daude askotariko Sistema Orokorrak (Eremu Libreak eta Berdeguneak, Komunikazioak, Ekipamendu Kolektibo Publikoak), Ekipamendu Pribatuak eta hiriko zerbitzuak eskaintzeko azpiegiturak.


Hori guztia aintzat hartuta, eta hiriko erabileretarako arloen aukera-kopuru handia kontuan izanda, aurrerakinaren fase honetarako **hiri-erabileretarako hiru aukera-multzo** eskaintzen dira guztira (aurrerantzean, "aukerak" esango diegu). Haien artean koherentzia dute aukerak eta hiri-plangintzaren eredu desberdinak ikusarazten dituzte. Horregatik, egin daitezkeen konbinaketa desberdinetatik beste ereduaren aukera batzuk planteatu daitezkeela ulertu behar da. Egungo indarrean dagoen plangintzak (UPAS) duen "0 aukera" mantentzea, egungo egoera alderatzeko baino ez da adierazten.

Isolatutako jarduketak eta zuzkidurakoak hurrengo taulan ageri dira, eta modu independentean hartuko dira kontuan, bai eta planoetan identifikatzen diren Hiriaren Berroneratze Eremuak ere. Halaber, aukera guztietan txertatzen dira, lurraldearen eredua eztabaidatu eta aukeratzeko orduan eragin handiegirik ez baitute.

Jarduketa isolatuak: Jarduketa isolatuak dira hiri-lurzoruan identifikatutako eta hutsik dagoen orube bat eraikitzea dakarten eraikuntza-jarduketak, edo zaharkituta dagoen eraikin baten ordean hiri-bilbean hobeto integratzen den beste bat jartzea dakartenak, baita urbanizazio-obra osagarriren bat egitea eskatzen dutenak ere, baldin eta horrek eraikuntzaren kostuaren % 5 baino gutxiago eskatzen badu.

Zuzkidura-jarduketak: Zuzkidura-jarduketak dira lurzoru urbanizatu bateko zuzkidura publikoak handitzea helburu dutenak, haien proportzioa egokitzeko eraikigarritasun handienarekin edo hirigintza-antolamenduan esleitutako erabilera berriekin.

Hiri-berroneratzeko eremuak Administrazio publikoak ekintza berezi baten mende jarri behar dituen eremuak dira, ondare urbanizatua edo eraikia eguneratzeko edo egokitzeko beharrezko baldintzak eta xede duen biztanleriaren baldintza sozioekonomikoak kontuan hartuta. HAPOk eskatutako esku-



DURANGO

Udala • Udala


Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

hartzearen maila baloratu eta aztertu beharko du eta, hala badagokio, proposatutako arloak baliozkotu beharko ditu. Halaber, beste berri batzuk finkatu ahal izango ditu aipatutako baldintzak kontuan hartuta. Arlo horietan HAPOk eraikuntzako birgaitzeen definizioa eta hiri-berroneratzeko eremu publikoetan esku-hartzea eskatu ahal izango du, eta birgaitzeko araudi espezifikoak zehaztu ahal izango du (igogailuak zuzkitzeko baldintza bereziak -baita bide publikoan ere-, berroneratzeak, gehikuntzak, balizko hedapenak, osasun-baldintzak hobetzea, erabileren nahasketa, konektagarritasuna, etab.).



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Antzemandako Isolatutako eta zuzkidurako jarduketak, hurrengoak dira:

nombre	sup	edifica	n_vivien existentes	n_vivien nuevas	n_vivien incremento	
AA-01	350	713	0	8	8	
AA-02	580	1008	0	8	8	
AA-03	742	5193	0	48	48	
AA-04	190		0	6	6	
AA-05	1251	261	0	2	2	
AA-06	1137	261	0	2	2	
AA-07	1510	1470	0	6	6	
AA-08	1484	735	0	3	3	
AA-09	1438	261	0	2	2	
AA-10	1415	261	0	2	2	
AA-11	1251	261	0	2	2	
AA-12	2734	261	0	2	2	
AA-13	404		0	0	0	TERCIARIO
AA-14	601	179	0	2	2	
AA-15	648	197	0	2	2	
AA-16	648	199	0	2	2	
AA-17	1458	1125	0	9	9	
AA-18	648	189	0	2	2	
AA-19	656	216	0	2	2	
AA-20	621	203	0	2	2	
AA-21	186	200	0	0	0	TERCIARIO
AA-22	1734	5485	0	47	47	
AA-23	972	2200	0	0	0	TERCIARIO
AA-24	1468	3323	0	0	0	TERCIARIO
AA-25	1456	3296	0	0	0	TERCIARIO
AA-26	1464	2087	0	23	23	
AA-27	1651	2143	0	23	23	
AA-28	85		0	3	3	
AA-29	170		0	4	4	
AA-30	232	1023	3	10	7	
AA-31	941		0	0	0	TERCIARIO
				TOTAL	219	
AD-01	1360		0	8	8	
AD-02	7410		0	12	12	
AA-03	960	1630	8	12	4	
				TOTAL	20	
			TOTAL (AA+AD)		239	

Identifikatutako hiri-berroneratze eremuak, hurrengoak dira:

- Aramotz
- Juan Itziarko
- Sasikoa
- Uribarri
- San Fausto



DURANGO

Udala • Udala


.....
Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Aukera hori ez da bideragarria legearen ikuspegitik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak moldatzera behartzen baitu. Gainera, horretarako, hirigintzaren eta babestutako etxebizitzaren estandar guztiak berrikusi behar dira, eta Legeak xedatzen dituen jasagarritasuneko irizpideetara gehiago egokitzen den lurralde-eredua ezarri.

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA[illegible]



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




Avance
Aurrerakina


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

7.3.3.2. 1 aukera:

Aukera hori bat dator udalerriaren egungo hirigintza-esparruari eusteko planteamenduarekin, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legetik eratorritako estandarrak garatu ez diren gizarte-aurreikuspeneko arauen egitura orokorrari eta antolamendu-eremuei aplikatuta. Horrek, oinplanoan indarrean dauden UPASen arauen antzeko irudia ekarriko luke, lurzoruen okupazioari eta antolamenduari dagokienez; baina, ondorio nagusi gisa, zenbait eremutan eraikigarritasuna handitzea ekarriko luke (adibidez, Artabillako 4-BEPBn), eta, beraz, eraiki beharreko etxebizitza kopuru handiagoa, baina lurralde-eredua birplanteatu gabe.

Hala, “0 aukeran” bezala, oraindik gauzatzeke dauden unitateetan edo gauzatzen ari direnetan, 62 hektareako bizitokien lurzoria garatzea aurreikusten da (42 hiriko lurzoruetan eta 20 lurzoru urbanizagarrietan). Adierazitako inplikazioen ondorioz, 3.124 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, etxebizitza babestuen estandarretara egokituta (1.612 libre, 604 tasatu eta 908 babes ofizialeko). Horietatik 306 dagoeneko eraikita daude (guztiak hiriko lurzoruan) eta **2.818 etxebizitza** eraikitzea falta da. Ekonomia-jardueretarako aurreikusitako eremuei dagokienez (46 hektarea inguru), guztiak lurzoru urbanizagarrian daude, eta 227.655 m²-ko eraikigarritasuna dute lau arlotan. **(Ikusi erantsitako koadroak)**





DURANGO

Udala • Udala


Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Aukera honek ingurumeneko eta garapen jasagarriko hainbat irizpide ez ditu betetzen, horien artean, ez du lehenesten dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera, batez ere nekazaritzako lurzorua eta natura zainduz; eta ez du eragozten erabilera edo jarduera desberdinen integrazio egokia eta espazioaren kohesioa mantendu ahal izateko bereizketa eta hedapen urbanoa, Artabilla eta Eguzkitzagoienako lurzoru berriak egiten badira mugikortasuna sortzea murriztu ahal izateko.

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA[illegible]



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




Avance
Aurrerakina


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

7.3.3.3. 2 aukera:


Aukera hori bat dator HAPO berrian ahalik eta intentsitate handieneko hiri-erabileretarako aukera guztiak txertatzeko planteamenduarekin. Hasiera batean, teknikoki bideragarria izango litzateke planteamendua, legezko parametroen artean baitago, baina xehe aztertu behar da ea proposatutako helburuetara eta irizpideetara egokitzen den.

Aukera honek bizitegi-lurzoruen 71 hektarea aurreikusten ditu (51 hiriko lurzoruan eta 20 lurzoru urbanizagarrian), 3.395 etxebizitzarekin (1.817 libre, 673 tasatuta eta 905 babes ofizialekoak), gehienak hiriko lurzoruan. Horietatik 306 dagoeneko eraikita daude (guztiak hiriko lurzoruan) eta **3.089 etxebizitza** eraikitzea falta da. Ekonomia-jardueretarako aurreikusitako eremuei dagokienez (48 hektarea inguru), 237.747 m²-ko eraikigarritasuna dute lurzoru urbanizagarriko eta hiri-lurzoru finkatugabeko bost arlotan. Gainera, egungo Tabirako eremu urbanizaezinean, erabilera mistoen eremua proposatzen da, Fundifes zaharraren eta Tabiragunearen artean hiri-bilbea handitu eta jarraikortasuna emateko. **(Ikusi erantsitako koadroak)**



HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Numeración	Numeración NNSSP	Denominación	Superficie m²	Edificabilidad urbanística	coef. edif. Urbanística m2c/m2s	Edificabilidad AAEE y SERV	Edificabilidad d residencial m²t / m²s	m² construidos en VPO	m² construidos en VPT	m² construidos en viv. Libre	Nº viv. VPO	Nº viv. Tasada	Nº viv. Libre	Nº viv. Total	nº viv materializadas	nº vacantes	
		CUANTIFICACION EN SUELO URBANO RESIDENCIAL															
AI-01a	PERI 01	FERROCARRIL	55.401	49.766,74	0,90	3.391,00	46.375,74	9.391,23	0,00	36.984,51	97	0	313	410	0	410	
AI-02	PERI 02	SAN FAUSTO	48.128	48.128,00	1,00	3.458,35	44.669,65	8.933,93	8.933,93	26.801,79	90	88	288	466	49	417	
AI-03	PERI 3	SAN ROKE	68.118	57.900,00	0,85	600,00	57.300,00	13.590,00	4.410,00	39.300,00	143	40	328	511	253	258	
AI-04	PERI 4	ARTABILLA	100.846	40.338,40	0,40	4.033,84	36.304,56	7.260,91	7.260,91	21.782,74	75	69	182	326	0	326	
AI-05	UE 02	BIRJINOSTE	18.554	15.214,00	0,82	390,00	14.824,00	3.800,00	0,00	11.024,00	39	0	91	130	0	130	
AI-06	UE 06	TRENBIDE	2.265	4.077,00	1,80	700,00	3.377,00	0,00	675,40	2.701,60	0	6	23	30	0	30	
AI-07	UE 08	INTXAURRONGO-MAÑARIA	6.620	4.500,00	0,68	0,00	4.500,00	0,00	0,00	4.500,00	0	0	35	35	0	35	
AI-08	UE 10	LARRASOLOETA	41.071	18.484,00	0,45	173,50	18.310,50	3.661,70	3.661,70	10.987,10	38	38	99	175	0	175	
AI-09	UE 11	ONA	994	2.397,80	2,41	300,00	2.097,80	0,00	0,00	2.097,80	0	0	20	20	4	16	
AI-10	UE 15	IPARZABALARRA	17.651	14.474,00	0,82	100,00	14.374,00	2.874,80	3.593,50	7.905,70	30	34	69	133	0	133	
AI-11	UE 16	ARRIPAUSUETA	18.596	15.249,00	0,82	414,00	14.835,00	4.437,00	0,00	10.398,00	55	0	95	150	0	150	
AI-12	UE 17	KABILDUOSTE	42.195	16.859,60	0,40	90,00	16.769,60	1.849,80	1.759,80	13.160,00	18	18	110	146	0	146	
AI-13		TABIRA	5.122	2.048,80	0,40	0,00	2.048,80	0,00	0,00	2.048,80	0	0	17	17	0	17	
AI-14		C. AGUSTINAS	12.892	11.602,80	0,90	3.600,00	8.002,80	1.600,56	4.401,54	2.000,70	17	42	17	76	0	76	
AI-15		C. FRANCISCANAS	26.700	29.370,00	1,10	4.760,00	24.610,00	4.922,00	13.535,50	6.152,50	51	129	54	233	0	233	
AI-16		C. CARMELITAS	3.435	3.778,50	1,10	377,85	3.400,65	0,00	3.400,65	0,00	0	32	0	32	0	32	
AI-17		C. SALESAS	4.952	5.942,40	1,20	1.500,00	4.442,40	888,48	2.443,32	1.110,60	9	23	10	42	0	42	
AI-24		MARISTAK	4.776	5.731,20	1,20	1.500,00	4.231,20	0,00	4.231,20	0,00	0	40	0	40	0	40	
AI-25		TABIRAGUNE	33.179	19.907,00	0,60	7.962,80	11.944,20	5.972,10	5.972,10	0,00	62	54	0	116	0	116	
		TOTAL	511.495,00	365.769,24		33.351,34	332.417,90	69.182,51	64.279,55	198.955,84	723	615	1.750	3.088	306	2.782	
						9,12%		20,81%	19,34%	59,85%							
		CUANTIFICACION EN SUELO URBANIZABLE RESIDENCIAL															
AI-18	PP 2	EGUZKITZAGOIENA	119.011	35.703,00	0,30	3.570	32.133	17.672,99	6.426,54	8.033,18	182	58	67	308	0	308	
		SSGG-Adscritos	84.141														
		TOTAL	203.152,06	35.703,00		3.570,30	32.132,70	17.672,99	6.426,54	8.033,18	182	58	67				



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa




Avance
Aurrerakina


HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA


7.3.3.4. 3 aukera:

Aukera hori hazkunde moderatuago gisa planteatu da. Horretarako, lehentasuneko eta puntuaziorik hobereneko lurzoruak soilik okupatuko dira (**ikus erantsitako dokumentua**), eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri txiki bat sortuko da, Arau Subsidiarioetako beste eremu handiago batzuen ordez, hiri-bilbea jarduera ekonomikoko etorkizuneko lurzoruekin bateratzeko eta udalerria hegoalderantz bideratzeko.

Aldatu beharreko aukera-lurzoru horiek hautatzeko, horietako bakoitzak hiri-jasangarritasunean oinarritutako helburuak eta irizpideak betetzen diren baloratu behar du. Horiek guztiak herritarrek parte hartzeko prozesuan egiaztatu dira. Aukera honek etxebizitza-lurzoruen 37 hektarea aurreikusten ditu 2.640 etxebizitzarekin (1.504 libre, 527 tasatuta eta 608 babes ofizialekoak), guztiak hiriko lurzoruan. Horietatik 306 dagoeneko eraikita daude eta **2.334 etxebizitza** eraikitzea falta da. Ekonomia-jardueretarako aurreikusitako eremuei dagokienez (29,6 hektarea inguru), 154.153 m²-ko eraikigarritasuna dute lurzoru urbanizagarriko eta hiri-lurzoru finkatugabeko lau arlotan. (**Ikusi erantsitako koadroak**)



HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA[illegible]



DURANGO

Udala • Udala

Bulego Teknikoa
Bulego Teknikoa



**Avance
Aurrerakina**

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

8. ONDORIOA

Aurrerakin honek hazkunde-aukera desberdinak aztertzen ditu, eta 3 aukeren arteko arloak eta eraikigarritasuna uztartzea ahalbidetzen du.

Aurrerakinaren helburua aukera desberdinak aztertzea da, ezarri beharreko antolamenduaren irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak ezartzeko, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko lagungarria izateko, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen "Plangintza urbanistikoaren aurrerakinak" artikuluan xedatzen den moduan.

Beraz, gerora Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean garatu beharreko udalerriaren eredua ezartzeko aukerak azaldutzat ematen dira.

Dokumentu hau Durangoko Udaleko zerbitzu teknikoek idatzi dute, eta 2022ko maiatzean amaitu dute.

Igor Zorrakin Pérez

Udaleko bulego teknikoko
arkitekto burua